


FRANTSESAREN EGOERAREN BILAKAERA QUEBECEN:
BERTAKO GOBERNUAREN JOKABIDEA FRANTSESA
BABESTEKO ETA BULTZATZEKO



0. HITZAURREA

1. KANADAKO LEGERIA, ELEBITASUNA ETA EGUNEROKO JOKABIDEA

2. FRANTSESAREN HISTORIA QUEBECEN ETA KANADAN

- 2.1. “Frantzia Berria” koloniatik “Province of Quebec” koloniar (1760ko konkista)
- 2.2. Goi Kanada eta Behe Kanada (1791)
- 2.3. Noiz eta zergatik sortu zen Kanada (1838-1867)
- 2.4. Etorkinen eragina (1881-1961)
- 2.5. 1960. urteak
- 2.6. Subiranotasun kulturala lortzeko nahia: 70. urteak
- 2.7. 1982ko Konstituzioa. Lac Meeche-eko Akordioa. Charlottetown-eko Akordioa
- 2.8. 1995eko referenduma eta gaur egungo egoera

3. HIZKUNTZA-POLITIKAREN BEHARRA QUEBECEN

- 3.1. Frantsesaren egoera Kanadan
- 3.2. Quebeceko egoera. Frantsesen jaiotze-tasa. Etorkinen eragina
- 3.3. Ingelesaren indarra. Quebecarren kultura frantsesa babesteko nahia
- 3.4. Frantsesaren egoerari buruzko ikerketak: joku-arauak aldatzeko beharra.
- 3.5. Gaur egungo beharrak

4. HIZKUNTZA-POLITIKAREN BILAKAERA QUEBECEN FRANTSESA SUSPERTZEKO AHALEGINEAN

- 4.1. l’Office de la langue française, 1961
- 4.2. 1974ko Quebeceko hizkuntza ofizialari buruzko legea: aurrekariak, edukiak eta legearen gabeziak
- 4.3. Livre Blanc, 1977: zioak, printzipioak
- 4.4. Charte de la langue française: edukiak, Charte-ren ondorioak eta inpugnazioak
- 4.5. 1982: Kanadako konstituzioaren erreforma
- 4.6. Quebeceko gobernuaren erantzuna
- 4.7. Nazio Batzuen Giza Eskubideen batzordeen iruzkinak
- 4.8. 1996ko hizkuntza-politika
- 4.9. Gaur egungo egoera.

5. HIZKUNTZA-POLITIKAREN EREMUA, BILAKAERA ETA ERAGINA

- 5.1. Legeria aplikatzeko eremua

- 5.2. Hizkuntza-politika abian jartzeko baliabideak
 - 5.1. Office de la langue française
 - 5.2. Commission de surveillance ou de protection de la langue
 - 5.3. Commission de toponymie
 - 5.4. Conseil de la langue française
- 5.3. Hizkuntza-politika: eragina arlo desberdinetan
 - 5.3.1. Errotulazio publikoa
 - 5.3.2. Hezkuntza
 - 5.3.3. Lan-arloa
 - 5.3.4. Anglofonoen egoera
 - 5.3.5. Jatorrizko hizkuntzak

6. KANADAKO GOBERNUAREN HIZKUNTZA-POLITIKA

7. AMAITZEKO IRUZKINAK

BIBLIOGRAFIA

0. HITZAURREA

Sakontze egitasmo hau hasi baino lehen, ikus dezagun zein den Quebecoko egoera.



Begibistakoa denez, Quebec Kanadako Estatu Federala osatzen duten probintzietako bat da. Probintziak honako hauek dira: Nunavut, Newfoundland, Prince Edward Island, Nova Scotia, New Brunswick, Quebec, Ontario, Manitoba, Saskatchewan, Alberta, British Columbia, Northwest Territories eta Yukon. Ezaugarriei dagokienez, probintziak oso desberdinak dira euren artean, bakoitzak bere hizkuntza ezaugarri propioak dituelarik.

Kanadan (eta Quebecen ere) mintzatzen diren hizkuntzak hiru taldetan sailka daitezke:

- Hizkuntza ofizialak (ingelese eta frantsesa)
- Alofonoek dituzten hizkuntzak
- Jatorrizko herriek edo nazio autoktonoek (abenakitarrek, algonkindarrek, attikamekstarrek, huroitarrek, inuitarrek...) dituzten hizkuntzak

Lan honetan egoera orokorrari errepasoa eman arren, frantsesaren egoeraren bilakaera Quebecen eta bertako gobernuaren jokabidea frantsesa babesteko eta bultzatzeko hartuko da gaitzat, aipatutako hizkuntza-aniztasun egoera horretan, Quebecoko frantsesaren kasuak oso izaera berezia baitauka: Quebecen biltzen dira Kanadako frankofono gehienak, eta ondorioz, lurralde hartan honetan beti egin dira

frantsesaren aldeko ahalegin handiak, nahiz eta horrek arazoak sortarazi Kanadako gobernuarekin eta Kanadako gainontzeko lurraldeekin.

Ildo horretatik, azken urteotan aditu askok Quebeci leporatu diote Kanadako gobernu federalak bi hizkuntza ofizial onartzen dituen bitartean, (ingelesa eta frantsesa), Quebecen bat besterik ez duela onartzen: frantsesa. Baina hori esatean, egoera legala baino ez da kontuan hartzen, eta praktikan gertatzen dena ahazten da.

Izan ere, Kanada oso lurralde zabala da, eta bertan komunitate desberdin asko bizi dira (anglofonoak, frankofonoak, alofonoak, indiarak...). Horien artean, ingeles hiztunak dira gehienak, horrek dauzkan hizkuntza ondorioekin. Frankofonoen egoera, berriz, askoz ahulagoa da: gutxiago dira, eta gehienak Quebecen aurki ditzakegu. Frankofono horiek dira duela gutxi frantsesaren estatutua eta erabilera egituratzen hasi direnak, eta beren jokabide horri esker, frantsesa ez da desagertu Kanadatik eta Quebecetik.

Bestalde, eta panorama orokorra ulertu ahal izateko, beharrezkoa dirudi etorkinen, anglofonoen, eta nazio autoktonoen egoera, jarrera eta ikuspuntua, era laburrean bada ere, kontuan hartzea, Quebecen gobernuak aurrera eramane duen hizkuntza-politikak eragin zuzena eduki baitu haiengan.

Horixe da, beraz, Kanadan eta Quebecen aurki dezakegun panorama. Testuinguru horretan, gure lanaren helburuak hauek dira: 1. Quebecen historian zehar frantsesa babesteko eta suspertzeko zein jokabide izan duten aztertzea, 2. hizkuntza-politikaren oinarriak zeintzuk diren arakatzea, eta, 3. babes eta suspertze hori lortzeko Quebecen gobernuak jarritako baliabideak zeintzuk diren argitzea.

1. KANADAKO LEGERIA, ELEBITASUNA ETA EGUNEROKO JOKABIDEA

1982ko Kanadako konstituzioak hizkuntza ofizialtzat ingelesa eta frantsesa hartzen dituela esatea ez da nahikoa Kanadako hizkuntza egoera ulertzeko. Kanada lurralde askok osaturiko estatu federala da, eta konstituzioak hizkuntza ofizialei buruzkoa esandakoa bakarrik da aplikagarria gobernu federalean eta bere eraginpean dauden instituzioetan. Dena den, instituzio horietan –korreos, aireportuak- dagoen elebitasun-tasa nahiko baxua da. Bakarrik funtzionarioen %30 dira elebidun, eta horietako gehienak Ottawan –Kanadako hiriburuan- bizi dira

Izan ere, konstituzioaren arabera, Kanada osatzen duten lurraldeek eta probintziek badaukate frantsesari, ingelesari edo biei ofizialtasuna emateko eskubidea. Praktikan, berriz, New Brunswick da biak ofizialtzat hartzen dituen lurralde bakarra.

Historian zehar probintzia bakoitzak bere jarrera propioa eduki du gai honetan. Adibidez, 1974an Quebecoko gobernuak frantsesa hizkuntza ofizial bakartzat hartzea erabaki zuen. Dena den, horrek ez zuen Quebec lurralde elebatar bihurtu, 1867an Kanada sortu zenetik, konstituzioak elebitasun neurri batzuk inposatu baitzizkio Quebeci, horien artean legeak frantsesez eta ingelesez egon beharra, epaiketetan bi hizkuntzen erabilera bermatzea, edota zenbait eskoletan anglofonoek kontrol zabala edukitzea.

Baina Quebecokoa ez da Kanadako historian kasu bakarra izan.


Egia da, badaude beste lurralde batzuk elebitasun inposatu horren aurka borrokatu direnak: Manitoba, Alberta eta Saskatchewan, besteak beste. Probintzia horietako batzuek ez zuten legea bete, eta adibidez, 1890ean Manitobak ingelesa zela bere hizkuntza ofizial bakarra adierazi zuen. Kasu horretan, urte askotan ika-mikan izan ondoren, azkenean Kanadako Epaitegi Gorenak egoera salatu, eta konstituzioa ez betetzea leporatu zion Manitobari.

Manitobaren kasuaz gain, Albertak eta Saskatchewan-ek ere ez zuten elebitasunari buruzko legea errespetatu; horien kasuan, berriz, 1905ean Epaitegi Gorenak elebitasun ez errespetatze horrek ondorioz ez zeukala erabaki zuen. Hau ulertzeko kontuan hartu behar dugu Kanadako lurralde guztien egoera juridikoa ez zela berdina, eta bi lurralde horien legebiltzarrek elebitasuna derogatzeko askatasuna zeukatela. Hortaz, bi lurraldeek halaxe erabaki eta frantsesa aukerako hizkuntzat hartu baino ez zuten hartu (aukerako hizkuntza legebiltzarreko eztabaidetan, epaiketetan eta legeak sortzeko orduan).


Horixe da, beraz, Kanadari gainbegiratu bat ematean aurkitzen duguna: konstituzioak ingelesa eta frantsesa hizkuntza ofizialtzat hartu arren, badirudi hori egoera legala besterik ez dela.

Ikus dezagun, beraz, praktikan gertatzen dena.


Ingelesak eta frantsesak oso egoera desberdina daukate Kanadan, Quebecetik kanpo frantsesa gutxiengoaren hizkuntza baita. Hona hemen frankofonoen portzentajeak Kanadan eta Quebecen erakusten dituen grafikoa:



Agerikoa denez, frankofonoen gehiengoa Quebecen biltzen da. Eta halaxe ikusiko dugu hurrengo grafikoa aztertuz gero:



Ontarion eta New Bruswick-en ere frankfonoek komunitate garrantzitsuak osatzen dituzte, eta komunitate horiek jendetsuak izanik hezkuntza eta osasun sistema propio dauzkate frantsesez. 1991ean, frankfonoak New Bruswick-eko biztanleriaren %33,9 ziren 242.630 lagun, alegia. Halaber, Ontarion biztanleriaren %4,1 frankfonoa zen 376.825 lagun, guztira. Kanadako beste lurralde anglofonoetan, berriz, gutxiengo frantsesa txikia da: Britaniar Kolubian, biztanleriaren %1,5; Manitoban, %4,4 eta Terranovan, %0,5. Horrek esan nahi du lurralde horietan gizarte bizitza eta bizitza ekonomikoa ingelesez gertatzen dela, edo beste modura esanda, frantsesaren presentziarik ez dagoela edo presentzia hori oso ahula dela. Grafiko honetan ingelesa lehen hizkuntzatzat duten populazio-kopuruak ikusiko ditugu:




Grafikoetan ikusi dugunez, Quebecoko hizkuntza ezaugarriak oso bereziak dira, Kanadako gaineko lurraldeekin alderatuz: bertan frankfonoek gehiengo zabala osatzen dute (biztanleriaren %82,1) “frantsestasun” hori haren bizimoduaren arlo guztietan nabaritzen delarik, bai gizarte mailan, bai ekonomia mailan. Halere, Quebec barruan badago kasu berezi bat. Izan ere, Montrealgo datuak desberdinak dira: biztanleriaren %46 frankfonoak dira, eta %60 anglofonoak.

Bestalde, quebectarren %9,6k ingelesa daukate ama hizkuntza, eta hauei etorkin alofonoak gehitu behar zaizkie. Quebecen anglofonoak gutxiengoa izan arren, zerbitzu asko dauzkate ingelesez. Zerbitzu horiek (eskolak, unibertsitateak, ospitaleak, irratia, telebista, teatroak, zineak...) Quebecoko gobernuak ordainduta daude eta, hala nahi izanez gero, anglofonoek beren bizimodua ingeles hutsean egin dezakete, batez ere, Montrealen.


Arestian ikusi dugu Kanadako frankofonoen %90 Quebecen kokaturik daudela, baina Quebecoko biztanleria federazioko laurdena besterik ez da: 1996an Kanadak 28.846.761 biztanle zeuzkan, eta horietako 7.138.795 quebectarrak ziren. Beraz, Quebecetik kanpoko frankofonoak Kanadako gainontzeko lurraldeetako biztanleriaren %20 bezterik ez da, eta portzentajea behera doa urteak aurrera joan ahala. Izan ere, Quebec kontuan hartu gabe Kanadan 970.000 lagun dira euren burua frantses hiztunak hartzen dutenak, hauetako lautik hiru New Brunswick-en –akadiarrak- eta Ontarion bizi direlarik.

Ikus dezagun orain federazioko biztanleriak daukan frantsesaren ezagutza maila:



Grafikoan erakusten denez, ezagutza maila oso baxua da, Quebecen eta New Brunswick-en izan ezik. Izan ere, Quebecetik kanpoko anglofonoen %9k baino ez dakite frantsesa.

Federazioko biztanleriak daukan ingelesaren ezagutza maila, berriz, askoz altuagoa da. Hona hemen:



Emandako datuak eta azalpenak aztertu ondoren, laster ikusten dugu Kanadako hizkuntza ofizialak kontuan harturik, hiru lurralde bereiz ditzakegula:

Lurralde frankofonoa: Quebecen eta Ontario eta New Brunswickeko eskualde batzuk osatzen dute. Dena den, arestian esan dugu hiru lurralde horietan egoera oso desberdina dela: Ontarion, adibidez, frantsesa nekez gordetzen da, baina Quebecen, berriz, frantsesa eranskaria da, herri ikurra, eta Quebecen gobernuak hizkuntza ofizialtzat hartzen du.

Lurralde anglofonoa: Quebecetik kanpoko Kanadan ingelesa da jauna eta jabe. Gainera, hizkuntzalaritzen ustean eta datu estatistikoen arabera, egungo joera da frankofonoak ingeles hiztun bihurtzea, ingelesaren erakargarritasuna oso handia baita.

Lurralde mistoa: Ottawa, Montreal... hiri handiak, alegia. Horietan elkarrekin bizi dira ingelesa eta frantsesa, nahiz eta ez egoera orekatuan. Izan ere, Montreal da oreka hori lortu duen hiri bakarra. Bertan, eta duela bi mende, hizkuntza komunitate biak bizi dira eta biek egin dute aurrera euren arteko gatazkak eta guzti.

Puntu honi amaiera eman baino lehen, beharrezkoa dirudi ofizialak ez diren hizkuntzak aipatzea: hizkuntza alofonoak eta autoktonoak. Horiei buruz luze hitz egingo da hurrengo puntuetan bere egoera legala zehazteko, eta federazioko eta Quebecoko hizkuntza-politikaren erruz jaso duten eragina azaltzeko, baina momentuz egokia izango da aipamen labur bat egitea: hizkuntza alofonoei dagokienez, asko dira (txinoa, gaztelania, italiera...) eta egoera desberdinetan aurkitzen dira. Dena den, beharrezkoa dirudi esatea Quebecen politika zorrotza garatu duela etorkinekin eta kasu askotan frantsesa ikastera bultzatu/animatu dituela, horretarako diru-laguntzak emanez.

Bestalde, eta hizkuntza autoktonoei begira, gehienak egoera larrian daude. Izan ere, Kanadako 60 hizkuntzetatik 8 hilda zeuden 1990erako, beste 13 hilzorian (hiztunak 50 urtetik gorakoak baitziren) eta 23 oso larri (haurrek ikasten ez zituztelarik). Datu horien arabera, badirudi Federazioko 4 hizkuntzek besterik ez dutela irauteko aukera garbia. Hurrengo puntuetan ikusiko da zer-nolako papera jokatu duten Quebecen eta Kanadaren haien egungo egoera.

2. FRANTSESAREN HISTORIA QUEBECEN ETA KANADAN

2.1.- “Frantzia Berria” koloniatik “Province of Quebec” koloniara (1760ko konkista)

1760an ingelesek “Frantzia Berria” kolonia bereganatzea garrantzi handikoa izan zen frantsesaren iraupenarentzat Ipar Ameriketara, eta ziur asko, frantsesarentzat oro har. “Frantzia Berria” kolonia 1763an behin betiko pasa zen ingelesekin eskuetara, eta, horrekin batera, lurralde horretako kanadar-frantsesen bi mendeko agintaldia amaitu zen. Egun batetik bestera, kolonian bizi ziren 60.000 kolono frantsesek beraiena herri konkistatua zela, eta beste hizkuntza, beste erlijio eta beste lege batzuen menpe zeudela ikusi zuten. Izan ere, Ingalaterrak laster bidaliko zituen lagun asko eta asko Province of Quebec batailaturiko lurralde hartara, kolonia menperatzeko asmoz.

Hona hemen 1740ko mapa, bertan ingelesek konkistatuko zuten “Frantzia Berria” kolonia ondo ikusten da:

-  French Recognition of British Claims
-  New France
-  Disputed Area



Mapan ikusi ahal denez, 1760ko porrot militarrek ondorio larriak ekarri zituen frantsesen eta frantsesaren iraupenerako Kanadan, kultura eta hizkuntza garatzeko lurralde gabe geratu baitziren.

Halaxe ulertu zuten koloniari etorkizun beltza iragarri zioten garaiko adituek:

"The evolution of this New British colony, it was felt, would be similar to that of New York, first settled by Dutch colonists, and of New Jersey, which had been founded by Swedes. In less than a century, these two distinctive collectivities had melted away. The British conquerors of the St. Lawrence Valley sincerely believed that a similar fate awaited the Canadiens." (De lois et de langues au Québec. Marc Chevrier, 1997)

2.2.- Goi Kanada eta Behe Kanada (1791)

Ingalaterrak 1791n lurraldea erdibitu zuen, bi probintzia sortuz: Goi eta Behe Kanada. Goi Kanada bere 10.000 kolonorentzat erreserbatu zuen, 150.000 kanadar-frantsesentzat Behe Kanada utziz. Frantses horiek legebiltzar propio bat edukitzea lortu zuten arren, oso botere gutxi zeuzkaten ekonomia eta gizarte eskubideen arloan.

Hona hemen zelan deskribatu zuen egoera Alexis de Tocqueville pentsalariak bere 1831ko bisitaldian:

"Pero resulta fácil ver que los franceses son el pueblo vencido. Las clases ricas pertenecen, en su mayoría, a la raza inglesa. Aunque el francés es el idioma casi universalmente hablado, la mayoría de los periódicos, los carteles y hasta los rótulos de los comerciantes franceses están en inglés. Las empresas comerciales están casi todas en manos de los ingleses. (Tocqueville, Alexis de. Cité par Marc Chevrier, De lois et de langues au Québec, 1997)


Dena den, eta murriztuak ziren arren, Behe Kanadako legeltzarrak lorturiko botereei esker, ingelesek ezin izan zituzten kanadar-frantsesak menperatu.

2.3.- Noiz eta zergatik sortu zen Kanada (1838-1867)

1837an eta 1838an demokrazia eta errepublikaren aldeko ideiak zabaldu ziren Behe Kanadan, eta Louis-Joseph Papineuren Abertzaleen Alderdiak protesta handiak

antolatu zituen Londresko boterearen aurka, koloniarentzat gobernu konstituzional bat eskatuz. Ingalaterrak, berriz, ez zuen gobernu konstituzional hori ezarri nahi, eta Abertzaleen matxinada zapaldu eta eragotzi zuen. 1840an Ingalaterrak Goi eta Behe Kanadako lurraldeen bateraketa inposatu zuen dekretuz, eta ondorioz bi lurraldeak legebiltzar bakarrean elkartu behar izan ziren. Garai hori oso gogorra izan zen kanadar-frantsesentzat, legebiltzar bakar hori egoteak ingelesaren ofizialtasuna, eta frantses hiztunak gutxitzea ekarri baitzituen. Gainera, Ingalaterratik heldutako etorkin-kopuru handiari esker, biztanleria ingelesa bikoiztu egin zen, eta 1867an, gaur egungo Kanada sortu zen unean, kanadar-frantsesak biztanleriaren herena baino ez ziren.

Hona hemen garai hartako mapa (1867):



Dena den, 1867an egoera pixka bat hobetu zen: urte hartan sorturiko estatua kuasi-federala zen, eta horren ondorioz, gauzak ez ziren hain txarrak izan kanadar-frantsesentzat.

Batetik, legebiltzar propio bat eta autonomia erlatiboa zeukan probintzia bat (Quebec) lortu zuten. Bestetik, ofizialki berdina zen hizkuntza estatutua onartu zen parlamentu federalean eta Quebecekoan. Dena den, berdintasun hori “berdintasun ofiziala” baino ez zen izan, eta ez zuten praktikara eramanez. Bankuko bileteak, esaterako, ingelesez bakarrik atera zituzten 1930era arte. Seiluak, gobernuko txekeak, eta abar ingelesez bakarrik atera ziren 1960ra arte.

2.4.- Etorkinen eragina (1881-1961)

XIX. mendean zehar, eta ugalkortasun tasa handiari esker, emakumeko 4 umekoa baitzen, jatorriz frantziarrak ziren biztanle-kopuruak gorakada handia jaso zuen, eta ondorioz, 1881etik 1961era bitartean, frantses hiztunen portzentajea mantendu ahal izan zen, biztanleriaren %30, gutxi gora behera. Hori oso garrantzitsua izan zen, batez ere kontuan hartzen badugu beste probintzia batzuk sortu zirela eta munduko leku guztietatik etorritako etorkin asko eta asko heldu zirela probintzia berriotara. Izan ere, XX. mendearen hasieran, -ekonomia bultzatzeko eta probintziak kolonoz betetzeko- gobernu federalak lagun asko erakarri zituen, eta 1896tik 1914ra bitartean, 3.000.000 etorkin baino gehiagori eman zitzaion ongi etorria: ingelesak, estatu batuarak eta ekialdeko europarrak, frantses hiztunak ez zirenak, alegia. Horietako gehienak Kanadako mendebaldean kokatu ziren. Gezurra badirudi ere, kanadar-frantsesek ezin izan zuten hori egin, gobernu federalak horretarako erraztasunik eman ez zielako. Hortaz, frantses hiztun askok Kanadan geratu beharrean, Estatu Batuetako muga gurutzatu zuten 1890etik 1920ra bitartean, federazioa utziz.

Egoera horretan frantsesen portzentajea mantentzen lagundu zuen faktorea erlijioa izan zen: Quebec herri katolikoa zenez, eta jaiotzak kontrolatzeko neurriak hain urriak zirenez, frantses hiztunen arteko jaiotza tasa handia zen. Hori dela eta, frantsesaren egoera ofizialki gutxiengokoa izan arren, eta etorkin-kopurua handia izan arren, frantses hiztunen kopuruak gorakada handia jaso zuen.

Horixe dugu egoera hiztunei eta biztanleriari begira. Aldarrikapen politikoei dagokienez, garai hartako quebecarrek bere probintziak zeukan autonomia erlatiboa defendatzen zuten. Beren nahia zen Quebecoko izaera tradizionala babestea eta Kanadako gobernuak Quebecoko kontuetan ez sartzea izan zen. Dena den, “Quebecoko gizarte” edo “Quebecoko herria”-ri buruz baino gehiago, “Kanadako gizarte” edo “Kanadako nazioa”-ri buruz hitz egiten zen.

2.5.- 1960. urteak

60ko hamarkadako mugimenduari Iraultza lasaia (*Révolution tranquille*) deitu zitzaion, eta lorpen garrantzitsuak ekarri zituen Quebecoko gizarte frantsesarentzat:

1960an quebectarrek alderdi liberaleko Lesage jauna hautatu zuten beren gobernuburu. Lesagek Quebec modernizatzea eta Quebecoko gobernuarentzat ardura eta konpetentzia gehiago lortu nahi zituen federazioaren erreforma sakonaren bitartez. Lesageren ustean quebectarrek nazio edo herrialde desberdina osatzen zuten, eta ondorioz, estatutu propioa edukitzea ezinbestekoa zen. Halaber, frantsesarentzat babes handiago eskatzen zuen, Federazioko instituzioetan frantsesak zeukan estatusa edota hezkuntzan lortutako zenbait eskubide ez baitziren nahikoak haren ustean.

Testuinguru horretan 1961ean Kanadako Justizia Ministroak Kanadako konstituzioa “errepatriatzeko” laguntza eskatu zien probintziei. Izan ere, garai hartan – eta Kanada kolonia izan baitzen- Ingalaterrak zeukan Kanadako konstituzioa erreformatzeko ahalmena. “Errepatriatu” kontzeptu horren bitartez, Kanadak bere konstituzioa aldatzeko ahalmena bereganatu/berreskuratu nahi zuen. Quebecoko lehen ministroak -Jean Lesagek- berriz, ezetz erantzun zuen, “errepatriatu” nahi zen konstituzioak asko murrizten baitzuen Quebecoko boterea federazioan, eta gobernu federalak horri erremedio bilatzeko inolako aldaketarik aurreikusten ez baitzuen. Hitz bakar batean esateko, quebectarrei ez zitzaien komeni horrelako konstituziorik “errepatriatzea”, horrek gobernu federalaren eskuetan botere gehiegi izatea ekarriko baitzuen.

1964an horretarako beste proposamen bat egon zen, baina Lesagek berriro erantzun zuen ezetz, erabilitako formulak Quebeci ez baitzion ematen inolako konpetentziarik ezta bere kultura eta hizkuntza babesteko bermarik. Hortaz, Lesageren agintaldian quebectarrek bi aldiz betatu zuten federazioaren konstituzioa errepatriatzeko proposamen hori.

1966an beste hauteskunde batzuk egon ziren Quebecen, eta alderdi abertzaleko Daniel Johnson-ek irabazi zituen. Johnsonen eskaerak Lesagerenak baino nazionalistagoak ziren, eta 1966tik 1968ra bitartean, Quebecoko gobernuan egon zen bitartean, gobernu federalaren deszentralizazioa eskatu zuen behin eta berriz. Johnsonen alderdiaren ustez arazoa oso sinplea zen: federazioa bi hizkuntza komunitatek osaturik zegoen, frantsesa eta ingelesa, hots, Quebecokoa eta gainontzeko Kanadakoa. Bere hitzetan esateko:

...deux peuples fondateurs, deux sociétés, deux nations au sens sociologique du terme (Daniel Johnson, 1966. Cité par Marc Chevrier, Des lois et des langues au Québec, 1997)

Ondorioz, beharrezkoa zen quebectarrei nazio estatusa ematea, eta beren eskubide guztiak onartzea. gobernu federalak eta gainontzeko lurraldeak ezetz esan zieten eskaera horiei.

2.6.- Subiranotasun kulturala lortzeko nahia: 70. urteak

1968tik 1970era bitartean gauzek arestian aipatutako ildo horretatik jarraitu zuten, eta 1970etik 1976ra bitartean alderdi liberaleko Robert Bourassaren gobernu berriak, bere aitzindariak eskatutakoaz gain, Quebecen subirotasuna kulturala ere eskatu zion Kanadako gobernuari. Adierazitako nahia honako hau zen: quebectarrek gobernu propio bat eduki nahi zuten, Quebeceko izaera kulturala garatzeko gai izango zen gobernu, alegia; halaber, quebectarren izaera berezia aintzat hartuko zuen federazio bikultural batean parte hartu nahi zuten. Laburbilduz, Bourassaren gobernuak kultura frantsesa babesteko konpetentzia, eta federalismo deszentralizatuagoa eta malguagoa lortu nahi zituen, Quebeci baliabide ekonomiko gehiago, eta kultura eta gizarte mailan konpetentzia gehiago emateko.

Bourassaren gobernuak Quebeceko subirotasun kulturalako ideia hori behin baino gehiagotan plazaratu arren, gobernu federalak eta gainontzeko probintzietako gobernuak ez zuten eztabaida eztabaida horretan inolako interesik jarri. Interesgarriago jotzen zuten Ingalaterrako gobernuarengandik konstituzioa erreformatzeko ahalmena eskuratzea, konstituzioa errepatriatzea alegia: izan ere, arestian aipatu da Kanada ez zela bere buruaren jabe ikuspuntu juridikotik, Westminster-rek baitzeukan Kanadako konstituzioa aldatzeko ahalmena. Hori dela-eta, Quebeceko eskaerak bigarren mailako gai bihurtu ziren, eta quebectarrek bertan behera utzi behar izan zituzten beren nahiak.

Egoera horretan 1980an Quebeceko gobernuak kontsulta bat egin zien quebectarrei referendumen bitartez, auto-gobernu maila handiagoa izateko neurriak hartzeari buruz, baina quebectarren %59 ezezkoaren aldekoak izan ziren, eta horri esker gobernu federalak aurrera eraman ahal izan zuen konstituzioa “errepatriatzeko” proiektua.

2.7.- 1982ko Konstituzioa. Lac Meeche-eko Akordioa. Charlottetown-eko Akordioa

1982ko apirilaren 15ean Ingalaterrako Isabel II.ak subirotasun osoa eman zion Kanadari, eta handik aurrera Kanadako konstituzioa erreformatzeko ahalmena bereganatu zuen. Federazioarentzat egun garrantzitsua izan zen; ez quebectarrentzat, aldiz, ondorengo erreforman argi eta garbi ikusi baitzuten estatutu eta konpetentzia batzuk galtzen zituztela: konstituzioa betatzeko ahalmena esaterako, baita edukitako hizkuntza eta hezkuntzari buruzko konpetentzia batzuk ere.

Izan ere, 1982ko konstituzioaren testuak Eskubideen Gutuna (Charte des droits) zeukan txertaturik. Gutun horrek izugarrizko boterea ematen zion Kanadako Epaitegi Gorenari, hainbat gaitan azken arbitro bihurtuz, adibidez hizkuntza eskubideei buruzko gaietan. Horrek kalte handia egin zion Quebeci, Ingalaterrarekin edukitako hizkuntza eta kulturari buruzko konpetentziek, murriztuak baziren ere, errekonozimendu erlatiboa ematen baitzioten federazioan hizkuntza komunitate desberdina bezala. 1982ko konstituzioak, berriz, estatus hori ezeztatu eta gainontzeko probintzien estatusa bera, desberdintasunik egin gabe, eman zion Quebeci.

Agerikoa denez, 1982ko erreformak Kanada zentralizatua hobesten zuen, eta hori ez zen Quebecen eskatutakoa, quebectarrek ikuspuntu federatiboa eta binazionala nahiago baitzuten. 1982ko konstituzioak, aldiz, ez zuen Quebecen hizkuntza komunitatearen izaera desberdina onartzen, eta Kanada nazio bakarra zela zeukan oinarri. Bestalde, egindako erreformak herri autoktonoen eskubideak onartzen zituen, baina eskubide horiek zeintzuk ziren zehaztu gabe, eta Epaitegi Gorenaren eskuetan zehazteko ahalmena utziz. Herri autoktonoekin edukitako jokabide hori oso kaltegarria izan zen quebectarrentzat ere bai. Dударik gabe kultura anitzak sasi-onartze horrek bidea zabaltu zion Kanadako gobernuari Quebecen eskaerekin beste horrenbeste egiteko: quebectarrak protestatu arren, Quebecen arazoa fenomeno etniko bihurtu zen.

Egoera hori zuzentzeko asmoz, 1987an Lac Meech-eko Akordioa sinatzen saiatu zen. Horren bitartez, Quebecen gobernuak bere izaera desberdina eta berezia onartzea eskatzen zuen berriro; halaber, Kanadako gobernuari eta gainontzeko lurraldeetako Asanbladei hizkuntza dualitatea babestea eskatzen zitzaien.

Akordioa lortzeko saiakerak kale egin zuen; eta 1992an Charlottetown-en beste saiakera bat egin zen. Aldi hartan Bourassaren gobernuak batzorde berezi bat sortarazi zuen quebectarren iritzia ezagutzeko asmoz. 1991ko martxoan eginiko ikerketak bi

aukera ikusten zituen: subirotasuna lortzea edo federazioan beste kopartizipazio bat negoziatzea. Negoziaketak 1992an hasi ziren beste probintziekin batera.

Charlottetown-eko Akordioak oinarrizko diferentzia bat zeukan Lac Meech-eko Akordioarekin alderatuz, haren bitartez 1982ko erreformak Quebeci eragindako kalteak zuzentzeaz gain, Kanadako federazioaren funtzezko erreforma proposatzen baitzen (ez bakarrik Quebecoko mailan, federazio mailan ere bai: legebiltzarra, probintzien papera, erantzukizunak, eta abar). Quebeci zegokionez, batetik, Charlottetown-eko Akordioak quebectarren izaera desberdina onartu eta Quebecoko sustapena Quebecoko gobernuaren esku uzten zen; baina, bestetik, proposatutakoak probintzien arteko berdintasuna eta multikulturalismoa zeuzkan oinarri.

Kanadako eta Quebecoko gobernuen arteko arazo asko gainditu ondoren, 1992ko urrian bi referenduma egin ziren akordio horri baietz ala ezetz esateko, bat Kanada mailan eta beste bat Quebecen. Bietan biztanleriak (%55k Kanadan, eta %57k Quebecen) ezetz esan zion proposatutakoari.

2.8.- 1995eko referenduma eta gaur egungo egoera

1995eko referendumean Quebecoko autogobernu maila handiagoa izateko neurriak hartzeari buruz galdetu zitzaion, berriz ere, biztanleriari. Aldi horretan subirotasunari baietz ala ezetz erantzun behar zien, eta lorturiko emaitzak, %51 ezezkoaren aldekoa izan zen, argi eta garbi adierazi zuen egun bi jarrera desberdin, baina oso orekaturik daudenak, bizi direla Quebecoko gizartean. Izan ere, quebectar horien eskaerek berriro bultzatu zuten gobernu kontsulta bat egiten, 1982ko eragindako kalteak erreparatu gabe jarraitzen baitzuten. Agerikoa denez, herritar askorentzat “injustizia” horrek ondorio larriak eragin ditu Quebecen, eta Kanada ez da konpontzeko gai izan.

Hona hemen referenduma egin baino lehen, New York Times egunkarian agerturiko artikuluko puska bat:

“Quebecers have a genuine grievance — a sharp loss of constitutional status over the past decade and a half — that has never been satisfactorily resolved. Canada was shaped by the 18th-century conquest and absorption of the French colony of Quebec into the British Empire. British rule recognized the special linguistic and cultural status of Quebec, and the province carried a weight in independent Canada’s

affairs well beyond its 25 percent of the country's population. But when Canada established a fully sovereign Constitution in 1982, Quebec's legal status reverted to being just one of ten Canadian provinces. Agreements promoted by Ottawa since then to legally enshrine a special status for Quebec have been repeatedly rejected by English-speaking Canada. » ("Drastic Remedies in Quebec", The New York Times, October 30, 1995. Cité par Marc Chevrier. De lois et de langues au Québec, 1997)

Referendumean lorturiko emaitzak ikusi ondoren, zaila da esatea etorkizunean zer gertatuko den. Ezin da jakin, azkenean eta bere borondatez, Kanadak quebectarrengan eragindako kalteak, estatutua eta konpetentziak galtzea eragin dituztenak, erreparatuko dituen, edo quebectarrek subirotasunaren alde agertuko diren hurrengo referendumean. Dena den, quebectarrek ez dute etsi, eta emandako azken urratsek beren hizkuntza eskubideei berriro eustea izan dute helburu.

2001eko otsailaren 28an Quebectarren Oinarrizko Eskubideen Legea (Loi sur les droits fondamentaux et les prérogatives du peuple québécois et de l'Etat du Québec) jarri zen indarrean. Alderdi quebectarraren (parti québécoise) ustez, berriz, hizkuntza eskubideak testuan zehazturik ez zeudenez, legeak ez zituen ziurtatzen

Egoera horren aurrean quebectar askok bi bide besterik ez ditu ikusi: Quebecen oinarrizkoak diren hizkuntza eskubide batzuk Kanadako konstituzioan txertatzea edo Quebecen bere kabuz hizkuntza eskubideak konstituzio mailara jasotzeko lanari ekitea. Bigarren aukera hori aurrera eramateko era desberdinak egon arren, horietako bat eskubide horiek Quebecen benetako konstituzio batean txertatzea litzateke. Baina agerikoa denez, horrek berriro jarriko luke mahai gainean quebectarren estatu independentea izateko asmoa.

Eta hori, momentuz, quebectarrentzat proiektua baino ez da.

3.- HIZKUNTZA-POLITIKAREN BEHARRA QUEBECEN

3.1.- Frantsesaren egoera Kanadan

Quebeceko gobernuak beti babestu du frantsesa hizkuntza gutxitua eta, ondorioz, ahulegia delako estatuaren babesik gabe iraun eta garatu ahal izateko. Egia da, Quebecen frankofonoak gehiengoa izan arren, frantsesaren erakarpen boterea oso baxua da, ingelesa baita, kontinentean bezalaxe, merkataritzarako eta komunikazioetarako hizkuntza; beraz, frantsesa eta ingelesa elkarren lehian dabilta beti.

Erakarpen botereaz gain, badaude frantsesaren egoera ahula izateko beste zio batzuk. Horietako bat aurreko puntuan azaldu da: 1760ko konkistak hasiera eman zion ingeles kolonizazioari Ipar Ameriketara. Arestian aipatu da hori garrantzitsua izan zela frantsesaren etorkizunerako, anglofonoen menpe geratu zelako. Quebecetik kanpoko frankofono-kopuruaren gutxitze eta federazioaren hizkuntza-politika gertaera horren ondorio zuzenak dira: 1760tik geroztik, frantsesa baztertua izan zen Quebecetik kanpo, eta denbora luzean zehar frankofonoek ez zuten zerbitzu publikorik frantsesez, eta frantsesaren aurkako jarrera bizi behar izan zuten.

Honako datu hauek adieraziko digute frankofonoen asimilazioa Kanadan: 1931n Quebecetik kanpoko biztanleriaren %7,2k frantsesa zeukan ama-hizkuntza; 1991n, aldiz, portzentajea %5era jaitsi zen. Ama-hizkuntza kontuan hartu beharrean, hitz egiten den hizkuntza kontuan hartzen bada, honako hau aurkituko dugu: portzentajea %4,4tik %3,2ra pasa zela 1971tik 1992ra bitartean. Lurralde batzuetan erremediorik gabeko prozesua gertatu da: Ontarion, esaterako, frankofonoen portzentajea 4,6tik 3,2ra jaitsi zen 1971tik 1991era bitartean; Manitoban 4tik 2,4ra, eta Saskatchewanen 1,7tik 0,7ra. Quebecekan kanpo New Brunswick da frankofonoen portzentaje altua daukan lurralde bakarra: %31.

Gertatutako asimilazioak agerian uzten du 1867tik aurrera ingelesak gero eta indar handiagoa izan zuela. Egia da, 1890ean Manitoban, nahiz eta bere legeek elebitasuna preskribatu, ingelesa bakarrik onartu zuen bere hizkuntza ofizialtzat, eta gutxiengo frantsesak seme-alabei hezkuntza frantsesez emateko aukera galdu zuen, 1896an berreskuperatuz 1916an berriro galtzeko. Halaber, 1897an Ontarioko legeak ingelesa justiziarako hizkuntza bihurtu, eta eskola katolikoetan frantsesaren erabilera

murritzatu zuen. Ez dago esan beharrik aurrera eramandako asimilazio-politika horrek kalte handia eragin ziola biztanle frantsesei. Egia esateko, urte asko pasa ondoren, gutxiengo eskubideak berriro onartu ziren, baina beharbada frantsesaren egoerarentzat beranduegi izan zen. Dударик gabe, esan daiteke urtetan zehar Kanadako konstituzioak eta epaitegiek oso ahalegin txikia egin zutela gutxiengo frantsesaren hizkuntza eta kultura babesteko.

3.2.- Quebecoko egoera. Frantsesen jaiotze-tasa. Etorkinen eragina

Frantsesak nahiko egoera iraunkorra eduki du Quebecen azken urteotan: 1951tik 1991ra bitartean frantsesa ama-hizkuntza daukan biztanleen portzentajea %82 izan zen gutxi gorabehera; anglofonoena, berriz, %13,8tik %9,6ra jaitsi zen. Alofonoak kontuan hartuz gero, hazkunde nabaria somatzen da: %3,7tik %8,3ra igo da portzentajea urte horietan.

Aipatu datuek frantsesaren egoera osasuntsua frogatu arren, ezin ditugu ahaztu ahultzen duten beste bi faktoreak: jaiotze tasa eta etorkinen eragina.

1931tik geroztik quebectarren pisu demografikoa Kanadan gero eta txikiagoa izan da %27,7tik %24,7ra pasa delarik. 1875etik 1965era bitartean quebectarren ugalkortasuna Kanadako beste lurraldeetakoak baino handiagoa izan zen. 1960ko hamarkadatik aurrera, aldiz, quebectarrak Eliza Katolikaren aginduetatik aldendu, ohitura modernoagoei egokitu eta jaiotze tasa era nabarian jaitsi zen, mendeabaldeko tasarik baxuenetariko bat izatera pasa zelarik. Hona hemen datuak: 1956tik 1961era Quebecoko emakume frankofonoen ugalkortasun-indizea 4,2 izan zen. Indize hori 2,3ra jaitsi zen 1966tik 1971ra bitartean; eta 1,5era 1981etik 1986ra bitartean. 1990ean indizea 1,6ra igo zen, baina hori ez da nahikoa belaunaldien berriztapena ziurtatzeko; izan ere, berriztapena bermatzeko tasa 2,1ekoa izan behar da. Egun ugalkortasun-indize baxu horrek kezka handia sorrazten du quebectar batzuen artean, pisu demografikoa berriro jaistearren eta frankofonoen gutxitzearen beldur baitira.

Aipatutako beldur horri beste bat gehitzen omen zaio. Mendearen hasieratik aurrera heldutako etorkinek ingelesa aukeratu zuten komunikatzeko edo negozioak aurrera eramateko. Frankofonoen ugalkortasun-indizea altua izan zen bitartean, ez zen arazorik egon, baina. indizea jaitsiz joan zen neurrian, beldurra gero eta handiago egin zen, eta 1960ko hamarkadaren hasieran “oreka” apurtzeaz zegoela adierazi zuten

Quebeceko hainbat politikarik. Garai hartan etorkinek euren seme-alabentzako eskolak aukeratzeko eskubidea zeukaten, eta merkataritzako errotuloetan ez zegoen arau finkorik. Beraz, hamarkadaren amaierarako etorkinen %85ak baino gehiagok eskola ingelesak aukeratua zituzten. Halaber, herri autoktonoek ere ingelesa nahiago izaten zuten: 1931n autoktonoen %48k ingeleserako joera adierazten zuten bitartean, 1961ean portzentajea %69,6ra igo zen.

3.3.- Ingelesaren indarra. Quebecarren kultura frantsesa babesteko nahia

Nahiz eta frantsesaren kulturaz eta etorkizunaz kezkatu egon, 1867tik 1964ra bitartean Quebeceko gobernuak ez zuen gai horri buruzko inolako legerik proposatu. 1960ko hamarkadaren hasieran, berriz, euren instituzioen bitartez gauzak egiteko gai zirela konturatu eta bere pentsaera aldatu zuten.

Izan ere, 1760tik geroztik quebectarrak Eliza Katolikaren menpean bizitzen ohituta zeuden, eta Elizak hizkuntza eta erlijioa babesten zituen. Testuinguru horretan quebectarrek babesturik ikusten zuten beren burua: desberdinak ziren, eta Kanadako herri frantsesa osatzen zuten, eta bai erlijioak eta bai ohiturek asimilazioaren aurka jotzen zuten. Gero, XIX. mendetik aurrera, ekonomiaren industrializazioa bizi eta XX. mendearen hasieran “herri urbano” bihurtu zen: bigarren mundu gerraren ondoren, kontsumoaren gizartea eta modernitatea ezagutu zituzten.

1960 urteetatik aurrera ailegatutako ohiturek eta “haize” berriek quebectarren ordurarteko pentsaera aldaratu eta aurreko urteetako ideiak gorpuztu egin ziren: quebectarrak presio handia egiten hasi ziren Quebeceko gobernuak hizkuntza maila igo, eta zerbitzu on eta modernoak eskaini zitzaizkien. Bide batez, lagun asko eta asko konturatu ziren negozioetan eta merkataritzan ingelesa zela “prestigio” zeukan hizkuntza, eta horren ondorioz, enpresa askok atea ixten ziotela frantsesari.

Horixe bera aurkitu zuten egoera aztertzekeko Gobernuak sortu zituen bi batzordeek. Montrealen bertan etorkinek eskola ingelesa nahiago izateak kezka handia sortarazi zuen frankofonoen artean.

"By the 1960s the Anglicization of the city's school clientele seemed to portend a Montreal in which the children of immigrants would become Anglophones and French-speakers would ultimately become a demographic minority. Thus, for important

segments of the Francophone community, the individual right of parents to choose their children's language of schooling, historically respected in Quebec, now clashed with the "collective right" for Francophones to survive and prosper as Francophones. In the eyes of Montreal's rising Francophone elite, the new middle class of teachers, journalists, and policy professionals who had displaced traditional church elites as the leading force in French-Canadian society, Francophone minorisation in Montreal would spell ultimate doom for a living French language and culture throughout Quebec." (Marc Levine. Wisconsin-Milwaukee Unibertsitatea, 1990.)

Garai hartako pentsalari askok Montrealeko frankofonoak gutxiengo bihurtzeak frantsesa eta frantsesaren kultura lurralde hartan behin betiko galtzea ekarriko zuela uste zuten. 1962ko hauteskundeetan Jean Lesagek aldarrikatutako leloak argi eta garbi adierazten du garai hartako "espiritua": *Maître chez nous* (gure herriaren jabe). Eta horretarako behar-beharrezkoa zen frankofonoek goi mailako postuak lor zitzaizkien funtzio publikoan eta enpresetan. Halaber, beharrezkoa zen Quebecoko baliabideak handitzea, gobernu modernoa eratzea eta hezkuntza modernizatzea. Urtetan zehar frankofonoek bere identitatea erlijioan eta jatorria frantsesean oinarritu ondoren, hizkuntzan eta Quebecoko lurraldean oinarritzen hasi ziren. Ordurako quebecarrek ez zuten bere burua gutxiengo linguistikotzat hartu, gehiengo politikotzat baizik. Bide batez, frantsesa babesteko arauak martxan jartzeko eskatu zieten bai Quebecoko gobernuari, bai Kanadako gobernu federalari.

3.4.- Frantsesaren egoerari buruzko ikerketak: joku-arauak aldatzeko beharra.

Bi batzordek zabaldu zioten atea gaur egun ezagutzen dugun legeriari: horietako bat Lester B. Pearsonen gobernu federalak sortu zuen 1963an, Laurendau-Dunton batzordea. Batzorde horren helburua Kanadako elebitasuna eta bikulturalismoa aztertzea eta Kanadako federazioa sortu zuten bi herrien artean berdintasuna egoteko neurriak gomendatzea izan zen. Baina ikerketak egin ondoren, batzordeak Kanadan krisi larria zegoela salatu zuen 1965ean.

Izan ere, ikerketak argi eta garbi adierazi zuen frankofonoen haserrea: frankofonoek injustizia egoeran bizi zirela uste zuten eta frankofonoen papera ez

zeturrela bat haren pisu demografikoarekin errepikatzen zen behin eta berriz. Egia da, anglokanadarrak ziren ekonomia menperatzen zutenak eta goi mailako lanpostuak betetzen zituztenak. Bestalde, Quebecen, frankokanadarren diru-sarrera anglokanadarrena baino %35 baxuagoa zen. Are gehiago, Quebecoko elebidunek ere anglokanadar elebatarrek baino gutxiago irabazten zuten. Hori zela eta, batzordeak biziki gomendatu zuen zerbitzu publikoek eta enpresek helburutzat har zezaten frantsesa lan hizkuntza bihurtzea Quebecoko arlo pribatuan.

« ...on peut dire que la Commission a eu comme effet de rendre évidente aux Québécois la nécessité de changer chez eux les règles du jeu en ce qui touche à l'usage du français et de l'anglais, surtout dans le monde du travail; de faire surgir l'idée de fixer par une loi les conditions d'emploi de l'une et de l'autre dans le but d'assurer un meilleur statut à la langue française dans tous les domaines et des conditions plus favorables à son développement, à son épanouissement, enfin à sa diffusion. » (Jean-Claude Corbeil. Office de la langue française, 1980)

1968an Gendron batzordea sortu zen. Hori probintzia-mailakoa izan zen, eta Quebecen frantsesaren egoera eta erabilera aztertzea zuen helburu. Batzorde horren txostena 1972an argitaratu zen, eta Laurendeau-Dunton batzordeak bezala, Gendron batzordeak ere argi eta garbi ikusi zuen kasu gehienetan ingelesa zela lan-hizkuntza Quebecen. Dударик gabe, desberdintasun asko zegoen frankofono eta anglofonoen artean: gehienetan, frankofonoek gutxiago irabazten zuten, beren lanpostuak maila baxuagokoak ziren, etekin gutxi ateratzen zioten elebitasunari, eta, askotan, ingelesez lan egiten zuten.

Gendron batzordeak frantsesa quebectarren hizkuntza bihurtzeko neurri batzuk gomendatu zituen. Hona hemen batzorde kideek eman zituzten arrazoiak:

« En Amérique, le français est une langue marginale. Une langue dont l'utilité est limitée même sur le territoire où ceux qui la parle sont majoritaires. La politique qui découle de cette situation est claire; si le français doit survivre et s'épanouir sur le continent nord-américain, ce ne peut être qu'en lui donnant le maximum de chance et de protection sur le territoire du Québec; ce ne peut être qu'en en faisant sur ce territoire un instrument de communication utile pour tous.[...] Dans l'immense espace économique que constituent le Canada et les États-Unis, nous sommes, avec le français, face à une langue désarmée dans la lutte qu'elle doit mener pour faire valoir son

utilité. Situation qui n'est pas près de changer. Il en résulte qu'on ne pourra assurer, au Québec, vigueur et dynamisme au français qu'avec le soutien de l'État. Autrement, la partie qui se joue entre le français et l'anglais continuerait d'être par trop inégale. »

« Cette action de l'État doit viser à faire du français la langue commune des Québécois, en la rendant utile et nécessaire pour tous dans les communications de travail. » (Rapport de la Commission d'enquête sur la situation de la langue française et sur les droits linguistiques au Québec, 1972)

Batzordeak gomendio bat egin zion Asanblada Nazionalari Quebecen frantsesa hizkuntza ofiziala bihurtzeko, eta frantsesa eta ingelesa nazio-hizkuntza bihurtzeko. Batzordearen ustean beharrezkoa zen gobernuak neurriak har zitzan Quebecen frantsesa enpresen barruko komunikazioetan, gobernuaren komunikazioetan eta elkargo profesionaletan lan-hizkuntza bihurtzeko. Halaber, neurriak hartzea gomendatu zuen kontsumitzaile frankofonoen eskubideak errespetatzeko, eta publizitatean frantsesaren presentzia areagotzeko.

3.5.- Gaur egungo beharrak

Hurrengo puntuetan ikusiko dugunez, quebectarren nahiei erantzuna emateko eta frantsesa babesteko eta bultzatzeko hainbat erakunde eta lege jarri ziren martxan 60ko hamarkadatik aurrera, hala nola, Gai Kulturaletako ministerioa, Hizkuntza frantsesaren Bulegoa (l'Office de la langue française), Hizkuntza frantsesaren Gutuna (Charte de la langue française)... Beste batzuen artean, erakunde horien zeregina frantsesaren egoera ikertu eta ebaluatzea izan da, legeak egoera horren beharrei moldatu ahal izateko. Horregatik, eta nahiz eta funtsezkoenean politikaren zioak betikoak izan, Quebecoko hizkuntza-politika etengabe gaurkotzen ari den politika dugu.

Ilido horretatik, hona hemen 2001eko abenduaren 14an Kultura Ministroak, Diane Lemieux andreak, eginiko komunikatua Estatu Orokorraren batzordearen (Commission des États généraux) ikerketen emaitzak jaso ondoren:

“L'adoption de la “Charte de la langue française” en 1977 a marqué une étape décisive dans l'affirmation de l'identité de la nation québécoise et de sa capacité de s'épanouir en français en Amérique du Nord. Vingt-cinq ans plus tard, les travaux de la Commission des États généraux sur la situation et l'avenir de la langue française au Québec

on fait ressortir la nécessité de préserver la “Charte” en l’adaptant aux nouvelles réalités sociales, économiques et technologiques” (Diane Lemieux, 2002. Cabinet de la ministre d’Etat à la Culture et aux Communications. Office de la langue française, Secrétariat à la politique linguistique. La politique linguistique du Québec)

Begi bistakoa da quebectar askorentzat ezinbestekoa dela bere oraina eta etorkizuna frantsesez garatzea eta horixe dela, hain zuzen, frantsesa babesteko hizkuntza-politikaren zioa.

4.- HIZKUNTZA-POLITIKAREN BILAKAERA QUEBECEN FRANTSESA SUSPERTZEKO AHALEGINEAN

4.1.- l'Office de la langue française, 1961. Loi 63

Quebeceko hizkuntzari buruzko lehenengo legea ez zen oso ausarta izan, baina bere bitartez, Frantses Bulegoa (l'Office de la langue française) sortu zen 1961ean. “Benetako” lehenengo hizkuntza-legea 1969an onartu zuen Bertrand-en gobernuak: Frantsesa suspertzeko legea (loi pour promouvoir la langue française ou loi 63). Lege horren helburuak nahiko kontraesankorrak ziren: alde batetik, legeak hezkuntza frantsesez emateko agintzen zien eskola-batzordeei; bestetik, hizkuntza aukeratzeko ahalmena uzten zuen gurasoen eskuetan eta aukeratua ingelesa izanez gero, legeak oinarritzko frantses-maila bat bermatzen saiatzen zen. Halaber, legeak Migraziorako Ministeritzari eskatzen zion Quebecera ailegatutako etorkinek frantsesa ikas zezatela ziurta zezala. Dena den, legea ez zen oso aproposa izan Quebeceko hizkuntza-oreka mantentzeko, batez ere Montrealen, bertako eskola ingelesek erakarpen handia baitzuten etorkinentzat.

4.2.- 1974ko Quebeceko hizkuntza ofizialari buruzko legea: aurrekariak, edukiak eta legearen gabeziak

1974an Robert Bourassaren gobernu liberalak frantsesaren “estatusa” jaso nahi zuen lehenengo legea onartu zuen: Quebeceko hizkuntza ofizialari buruzko legea, Loi sur la langue officielle du Québec ou loi 22, hain zuzen. Legea Gendron batzordeak emandako gomendio batzuetan oinarritu zen, eta hizkuntza bultzatzeko neurriak hartzea beharrezkoa zela azpimarratzen zuen:

« ...la langue française constitue un patrimoine national que l'État a le devoir de préserver, et [...] il incombe au gouvernement du Québec de tout mettre en oeuvre pour en assurer la prééminence et pour en favoriser l'épanouissement

et la qualité. » (De lois et de langues au Québec. Marc Chevrier, 1997)

Historian lehenengo aldiz, Quebeceko Asanblada Nazionalak frantsesa aldarrikatu zuen hizkuntza ofizialtzat; ondorioz, frantsesa Quebeceko gobernuaren komunikazioetarako hizkuntza bihurtuko zen, langileen eta nagusien artean komunikatzeko hizkuntza, eta kontratuetan eta errotuloetan erabiliko zena: helburua frantsesa negozioetarako hizkuntza bihurtzea zen.

Hezkuntzari dagokionez, 22. legeak hizkuntza aukeratzeko askatasuna berreskuratu zuen, baina baldintza batzuekin: gurasoek askatasuna edukiko zuten seme-alabek ingelesez edo frantsesez matrikulatzeko, beti ere seme-alabek aukeraturako hizkuntzan maila nahikorik bazuten. Maila ebaluatzeko, legeak proba batzuk ezartzeko agintzen zuen.

Azkenik, legeak Frantsesarako Administrazioa sortarazi zuen.

Horra hor, bada, 22. legearen edukiak.

Legearen gabeziei dagokienez, aipatu behar da legeak ezin izan zuela akordiorik sortarazi frantsesa bultzatzeko neurriei buruz: umeei ezarritako probak eta enpresetan frantsesaren inposaketa hori ez ziren anglofonoen eta etorkinen gustuko izan. Bestalde, nahiz eta frankofonoak konturatu neurri horien bitartez erreforma bilatzen zela, “epelegi” izatea leporatu zioten, praktikara eramatea oso zaila baitzen.

4.3.- Liburu Zuria, 1977: zioak, printzipioak

Gabezia horiek konpontzeko asmoz, 1976an Quebeceko gobernuan zegoen alderdiak, Alderdi Quebectarra hain zuzen, 22. legea berraztertzeko asmoa adierazi zuen; eta 1977ko apirilean Camille Laurin jaunak, Estatuko eta Kultura Garapenerako ministroak, frantsesari buruzko hizkuntza-politikaren Liburu Zuria aurkeztu zion Quebeceko Asanblada Nazionalari. Bertan gobernuaren programan frantsesari lehentasuna emango zitzaioela, eta hizkuntza legea Gutun baten bitartez garatuko zela ziurtatzen zen.

Liburu Zuri horren arabera, bazeuden frantsesaren egoera zuzentzeko zio batzuk: batetik, demografiaren joera kontuan harturik, argi zegoen frankofonoak gero eta

gutxiago izango zirela Kanadan eta Quebecen; gainera, etorkinek anglofonoen taldean sartzeko joera zeukaten, eta horrek prozesua areagotzea ekarriko zuen. Bestetik, enpresa-munduan frantsesa ez zen prestigio hizkuntza menpekoen hizkuntza eta soldata baxua zeukatenena baizik. Azkenik, quebectarrek ez zuten Kanadako gobernuaren laguntzarik.

Laburbilduz, Liburu Zurian agerian geratzen zen quebectar asko haserre zeudela frantsesaren estatusa, erabilera eta kalitatearekin.

Era berean, aipatu Liburu Zurian, gobernuak bere hizkuntza-politikaren oinarriak edo printzipioak ezarri zituen: hizkuntzak garrantzi handia zeukan, hizkuntza zaintzea bizimodua zaintzea baitzen. Bestalde, printzipio horietan Quebecen ingelesa eta hizkuntza autoktonoak ere bazeudela onartzen zen, baina nahiz eta hizkuntza horiek egindako ekarpena onartu, gizartean hobeto integratzeko oinarritzko frantsesa hitz egitea beharrezkoa zela esaten zen. Halaber, frantsesa hizkuntza ofizial bihurtzeak ez zuela ekartzen quebectarrek beste hizkuntza batzuk ez ikastea aipatzen zen. Azkenik, frantsesaren “estatusa” jasotzea justizia sozialekoa zela azpimarratzen zen:

...Ce qui est demandé à la majorité française, c'est de ressaisir le pouvoir qui leur revient, non pour dominer, mais pour s'imposer au rang et dans tout l'espace qui convient à son importance. (Livre Blanc sur la politique québécoise de la langue française, 1977)

4.4.- Charte de la langue française: edukiak, Charte-ren ondorioak eta inpugnazioak.

1977ko apirilaren amaieran gobernuak Hizkuntza Frantsesaren Gutuna (Charte de la langue française ou 101. legea) deituriko lege-proiektu bat aurkeztu zion Asanblada Nazionalari, 1977ko abuztuan indarrean jarriz. Edukiari zegokionez, Gutunak bere hitzaurrean legegilearen oinarritzko abiaburuak ezartzen zituen. Haren hitzetan esateko, frantsesa zen “*langue distinctive d'un peuple majoritairement francophone*”, “*qui permet au peuple québécois d'exprimer son identité*”. Gutunean Asanbladak argi eta garbi adierazten zuen asmoa zela frantsesa Estatuaren eta legearen hizkuntza bihurtzea, baita lan-hizkuntza, komunikaziorako eta negozioetarako hizkuntza ere. Gutunean gutxiengoaren hizkuntzen ekarpena onartzen zen Quebeceko garapenean,

baita indiarren eta inuit-en (eskimalen) eskubideak haien hizkuntzak eta kulturak garatzeko ere.

1977ko Gutunak, 22. legeak egin zuen bezala, frantsesa hartzen zuen hizkuntza ofizialtzat, oinarritzko hizkuntza eskubide batzuk aipatuz: lana frantsesez egiteko langileen eskubidea, kontsumitzaileena informazioa eta zerbitzua frantsesez jasotzeko, epaitegi batean interesdunena frantsesa lege-hizkuntza eta justizia-hizkuntza bezala erabiltzeko, edota hiritarrena frantsesa gobernuaren, erakundeen eta elkargo ofizialen hizkuntza izateko.

Bestalde, eta udaleko, hezkuntzako eta osasuneko erakundeak aipatuz, Gutunak esaten zuen frantsesa edo ingelesa aukeratuko zela bezeroen ezaugarrien arabera eta erdia baino gehiago frantsesa ez bazen, beste hizkuntza bat erabili ahalko zela.

Merkataritza eta negozioei zegokienez, frantsesa derrigorrezko hizkuntza zen etiketetan –baina ez zen erabil zezakeen hizkuntza bakarra-, eta derrigorrezkoa eta hizkuntza bakarra errotulo publikoetan eta publizitatean. Salbuespena honako hau izango zen: gehienez 4 langile zituzten enpreseei eta talde etnikoei baimena ematen zitzaien publizitatean eta ekintzetan beste hizkuntza bat ere erabiltzeko, beti ere, frantsesa beste hizkuntza hori bezain agerikoa bazen.

Hezkuntzari buruz hitz egiteko orduan, Gutunak esaten zuen umeak ingelesez eskolarizatuko zirela gurasoek lehen hezkuntza ingelesez egin bazuten, edo legea indarrean sartu zen unean ingelesez eskolarizaturik bazeuden. Gutunean batzorde berezi bat aurreikusten zen gurasoen eskaerei erantzuna emateko.

Horretaz aparte, Gutunak hizkuntzari buruzko legeria aplikatzeko batzorde batzuk sortarazi edo arautzen zituen:

*Frantses Bulegoa (L'Office de la langue française) hizkuntzari buruzko ikerketez eta terminologiaz arduratzeko. Egun Institutu edo Bulego honek baimena ematen die udal eta estatuko erakundeei barruko funtzionamenduan frantsesarekin batera beste hizkuntza bat ere erabiltzeko (biztanleriaren gehiengoa frankofonoa ez bada); halaber, Bulegoak enpresetan frantsesa ezartzeko programaz arduratzen da. Programa (50 langile baino gehiago dituzten enpresetan ezartzen dena) horren helburua enpresetako maila guztietan frantsesaren erabilera bermatzea da.

*Toponimia batzordea (Commission de toponymie): tokien izenez, ortografia araez... eta abarrez arduratzeko.

*Ikuskapen batzordea (Commission de surveillance ou de protection de la langue): legea betearazteko, eta arau-haustea aztertzeko.

*Kontseilua (Conseil de la langue française): Kontseiluak gobernuari informatzen dio frantsesari buruzko egoerari buruz, eta Gutunaren interpretazioa eta aplikazioari buruz.

Gutunaren edukiaren aurrean sortutako erreakzioak ugariak izan dira. Frantsesaren aldeko elkarte eta talde batzuen ustean Gutunaren onarpena izugarritzat garrantzia eduki zuen; anglofonoen artean, berriz, jarrera desberdina izan zen: batzuek onarpen zuhurra eskaini zioten, beste batzuek, ordea, protesta egin, eta epaitegietara jo zuten Gutuna salatzeke.

Aurkeztutako helegiteek Gutunaren ibilbidea markatu eta mugatu zuten. Horietako batzuk Kanadako Epaitegi Goreneraino (Cour Suprême du Canada) heldu ziren. Horrek arazoa politizatu eta probintzia guztien arreta erakarri zuen eta, ondorioz, 1978an Epaitegi Gorenak Asanbladak ezin zuela frantsesa hezkuntza bakartzat hartu adierazi zuen; izan ere, konstituzioak Quebec behartzen zuen elebiduna izatera bai legeak publikatzeko orduan, bai epaitegietan, bai gobernuak emaniko legeetan.

4.5.- 1982: Kanadako konstituzioaren erreforma

1982an gertatutakoak ondorio zuzenak eduki zituen Gutunaren eta Quebecoko etorkizunean: Kanadak bere konstituzioa eta erregimen federala erreformatu zituen, nahiz eta Quebec horren aurka egon, erreformak estatuto eta konpetentzia asko galtzea ekarriko baitzizkion. Izan ere, 1760ko konkistatik bigarren aldiz, Quebecoko erakundeek jarraipena kolokan egongo zen.

Erreforma horren bitartez, Kanadak Eskubideen eta Askatasunen Gutuna (Charte canadienne des droits et libertés) bereganatu zuen eta Kanadako Konstituzioan gutxiengoaren hizkuntza eskubideak ezarri ziren. Eskubide horien arabera, Quebecetik kanpoko ume frankofoenok eta anglofoenok gurasoen aukeratutako hizkuntzaz jasoko zuten hezkuntza, probintziek ordaindutako eskola publikoetan. Gainera, gutxiengo horiek euren eskolak administratzeko eskubidea lortu zuten. Arau horiek Kanada osoan aplikatu ziren.

Begibistakoa denez, Kanadako Eskubideen eta Askatasunen Gutunak ondorioak eduki zituen Quebecen. 1984an Kanadako Epaitegi Gorenak Quebecen ezin zuela mugatu umeen ingelesez ikasteko eskubidea iragarri zuen, beti ere ume horien gurasoek Lehen Hezkuntza ingelesez egin bazuten. Jarraian, 1988an, Epaitegi Gorenak erabaki zuen Quebecen Nazionalak ezin zuela exijitu bere lurraldean iragarkiak eta publizitatea frantsesez soilik izatea, Kanadako Epaitegi Gorenaren ustean hori berdintasunaren eskubideen aurka baitzihoan. Hitz batean esateko, Kanadak onartzen zuen quebecarren frantsesa babesteko eta bultzatzeko iragarkietan eta karteletan frantsesari lehentasuna ematea, baina, bestetik, ez zuen elebakartasuna onartzen.

4.6.- Quebecen gobernuaren erantzuna

1988ko abenduan Robert Bourassaren gobernuak Gutunaren edukia aldatzeko lege bat aurkeztu zuen (loi modifiant la Charte de la langue française). Lege horren bitartez, Gutuna ez zen Kanadako Epaitegiaren kontrolpean egongo hurrengo bost urteetan (antza, Kanadako legeak horrela jokatzeko aukera ematen du); halaber, errotulazioari buruzko arauak aldatzen ziren: iragarpenetan, etiketetan eta dendetatik kanpoko publizitatean frantsesa bakarrik erabiltzeko araua mantentzen zen, baina denda barruko publizitatean beste hizkuntza bat erabiltzea baimenduz, beti ere frantsesari lehentasuna ematen bazitzaion.

4.7.- Nazio Batuen Giza Eskubideen batzordeen iruzkinak:

Egoera hori ikusita, Quebecen dendari anglofono askok kexak eta eskaerak aurkeztu zituzten. Horren ondorioz, 1993an Nazio Batuen Giza Eskubideen batzordeak “iruzkin” batzuk egin zituen. Batzordearen ustean guztiz legitimoa zen estatu batek hizkuntza bat edo bi ofizialtzat hartzea, batez ere, horren bitartez gutxiengo bat babesten bazuen (Kanadan frankofonoak gutxiengoa dira); baina, bestalde, batzordeak azaldu zuen Quebecen errotulazio publikoari buruzko legea, Gutuna, alegia, adierazpen askatasunaren aurka zihoala.

Dena den, batzordeak onartu zuen Gutunak ez zuela inolako diskriminaziorik sorrarazten, eta ez zihoala zela gutxiengoen eskubideen aurka joaten. Izan ere, Kanadako anglofonoak ez dira gutxiengoa, gehiengoa baizik.

Iruzkinen ondorioz, Quebecoko gobernuak berriro aldatu zuen Gutunaren edukia. Aldaketak errotulazio publikoaren erregimenaren erreforma ekarri zuen: errotuloak bai frantsesez, bai beste hizkuntza batez egin ahalko ziren, baina frantsesari lehentasuna emanez. Gainera, gobernuak kasuak banan-banan aztertu ahalko zituen salbuespenak erabakitzeko.

4.8.- 1996ko hizkuntza-politika

1996ko ekainean Louise Beaudoin andreak, garai hartako Quebecoko Komunikazioak eta Kultura Ministroa eta Charte de la langue française delakoa praktikan jartzearen arduradunak, Gutuna aldatzeko proiektu bat eta hizkuntza-politikaren proposamen bat aurkeztu zituen Asanblada Nazionalan. Hona hemen bere hitzak:

...les orientations et actions proposées dans le document de consultation constituent un nouveau contrat linguistique axé sur l'affirmation du français, d'un français de qualité, comme langue commune et langue de convergence qui nous permettra de construire ensemble l'avenir du Québec, dans le respect des droits de la communauté anglophone et des nations autochtones... (Louise Beaudoin, 1996. Cité par Marc Chevrier. De lois et de langues au Québec, 1997)

Begibistakoa denez, proposamena frantsesaren aldekoa zen, baina anglofonoen eta herri autoktonoen hizkuntzen eskubideak errespetatuz. Proiektuak Frantsesa Babesteko batzordea (Commission de protection de langue française) berpiztu, eta produktu batzuen merkaturaketari buruzko arauak ezarri zituen (programa informatikoak merkatura ateratzeko, esaterako, beharrezkoa zen frantsesez ere egitea, hori posible bazen). Halaber, 1996an Quebecoko gobernuak administrazioan frantsesaren kalitatea hobetzeko eta erabilera areagotzeko politika berri bat iragarri zuen. Politika horren helburua frantsesa hizkuntza ofiziala izateaz gain, ohiko hizkuntza ere bazela frogatzea izan zen.

4.9.- Gaur egungo egoera.

2001ean Daniel Turp-ek, abokatua, unibertsitateko irakaslea eta Nazioarteko Harremanetarako batzordearen presidentea denak, bi txosten aurkeztu zituen Quebecoko legelbiltzarrean. Lehenengoan Quebecoko hizkuntza eskubideek behar zuten legebabesari buruzkoa zen. Bigarrenak, nazioarteko legedien aldetik behar zuenaz hitz egiten zuen.

Izan ere, Turp-en ustean Gutunean bildutako hizkuntza eskubideei konstituzio mailako izaera eman behar zitzairen, horrek ziurtatzen baitzuen eskubideak gehiengoan menpe ez gelditzea eta aldaketa politikoetatik babestea. Turp-ek proposamen bat egin zuen konstituzio mailako izaera hori lortzeko: hizkuntza eskubideak Quebecoko Eskubide eta Askatasunen Gutun batean (Charte des droits et libertés de la personne du Québec) txertatzea, eta bide batez horrek Quebecoko anglofono eta bertako herrietako komunitateen eskubideen babesa ere ekarriko luke. Era berean, Quebecoko Eskubide eta Askatasunen Gutunak zeuzkan mugak ikusita, Turp-ek benetako konstituzioaren beharra aldarrikatzen zuen.

Eginiko konstituzioaren zirriborroan frantsesa zen Quebecoko estatuaren hizkuntza ofiziala eta komuna. Ingelesa nahiz hizkuntza autoktonoak, berriz, Quebecoko kulturaren aberasgarri ziren neurrian, bi komunitate horietako hiztunei hizkuntza eskubide berezien jabetza aitortzen zitzairen. Hona hemen:

1. Le français est la langue officielle de l'État québécois.

2. La langue anglaise et les langues autochtones participent avec le français à la richesse linguistique du Québec et constituent un patrimoine culturel qui doit être l'objet d'une protection et d'un respect particuliers.

Arestian aipatu da egun gobernuan dagoen alderdia Alderdi Quebectarra dela. Alderdiaren asmoa da 2002an edo 2003an (gobernuan jarraitzen badute) beste hauteskunde batzuk antolatzea independentzia lortzeko. Izan ere, aurreko puntuetan azaldu dugu 1995ean gai horri buruzko egondako hauteskundeetan botoen %49,5ek baietz esan ziola independentziari.

Puntu horietan esan dugunez, ezin da jakin zer-nolako emaitzak lortuko diren etorkizunean beste hauteskunde bat antolatzen bada, baina argi dago quebectar askok uste dutela Quebecok izaera eta kultura desberdina dauzkala eta Kanadako federaziotik

ateratzea komenigarria izango zela kultura eta izaera horiek hobeto garatu eta defendatzeko.

5.- HIZKUNTZA-POLITIKAREN EREMUA, BILAKAERA ETA ERAGINA

5.1.- Legeria aplikatzeko eremua

1996an aurkeztutako hizkuntza-politikaren proposamenean argi geratzen da hizkuntza-politikaren eremua: *dans une démocratie comme la nôtre, l'usage personnel de la langue de son choix est un droit fondamental*. Horren arabera, beraz, esparru publikoa da gobernuaren hizkuntza-politikak legislatzen duena, esparru pribatuan komunikabideetan iritzia emateko orduan, esaterako, bakoitzak nahiago duen hizkuntza aukeratu ahal izatea funtsezko eskubidea baita, eta horrela bermatzen du 1975eko Quebeceko Eskubideen eta Askatasunen Gutunak (Charte des droits et libertés de la personne québécois).

Halaber, aipatzeko modukoa da hizkuntzari buruzko legeriak ez duela eraginik Asanblada Nazionalaren konpetentzien arlo guztietan. Kanadako erregimena federala da, beraz, Quebecek daukan legislatzeko ahalmena mugatuta dago, Kanadako konstituzioak mugatzen baitu. Ondorioz, hainbat arlotan ezin da aplikatu: ez gobernu federalean, ez gobernu federalaren eraginpean dauden erakundeetan, ez estatuko elkarte federaletan (Air Canada, Korreos...), horiek Kanadako hizkuntza erregimenari jarraitzen baitiote, eta ez lurraldekoei.

Azkenik, aipatu behar da legeria ezin dela aplikatu Quebeceko indioen babesguneetan (réserves indiennes).

5.2.- Hizkuntza-politika abian jartzeko baliabideak

Quebeceko hizkuntza-politika abian jartzeko lekeen artean, Hizkuntza Frantsesaren Gutuna (Charte de la langue française) dugu garrantzitsuena. Izan ere, Gutuna gobernuaren hizkuntza-politikaren abiaburua da, eta gai honi buruzko gainontzeko arauak eta legeak osatu egiten dute.

Legeek hainbat arlo landu eta legislatzen dute: frantsesa eta frankofonoak, merkataritza, lan-mundua, hezkuntza, anglofonoen egoera, herri autoktonoen eskubideak, etorkinak, eta abar. Horietako gehienak banan-banan aztertuko ditugun

arren, komenigarria da etorkinen politikari buruz azalpen batzuk ematea. Izan ere, etorkinei buruzko politikaren arloan Quebecen ahalegin handiak egiten ari dira

etorkinak hobeto molda daitezzen, eta frantsesa ikas dezaten. Quebecek badauka etorkinak aukeratzeko ahalmen legislatiboa, Kanadako konstituzioak ahalmen hori ematen baitio; beraz, hautagaiek Quebecoko gizartera moldatzeko gaitasun edo izaera berezia frogatu behar dute, aukeratuen artean egoteko. Moldatze prozesu horretan etorkinei frantsesa ikasteko diru-laguntza eskaintzen zaie. 1994-1995 ikasturtean, esaterako, 35 milioi dolar eskaini zitzaizkien.

Gainontzeko baliabideen artean, arestian esan dugu Quebecoko gobernuak erakunde batzuk sortu zituela hizkuntza-politika praktikara eramateko. Hasieran, erakundeak lau ziren: Frantses Bulegoa (L'Office de la langue française), Toponimia batzordea (Commission de toponymie), Kontseilua (Conseil de la langue française) eta Ikuskapen batzordea (Commission de surveillance ou de protection de la langue). Azpimarratzeko modukoa da azken hori 1993an itxi egin zela, 1996an berriro martxan jartzeko Frantses Bulegoaren eraginpean, gobernuaren ustean antolamendu hori eraginkorragoa baitzen hizkuntzari buruzko arauak betearazteko orduan.


Era laburrean bada ere, azter ditzagun batzordeen definizioak eta eginbeharrak.

5.2.1. Frantses Bulegoa (Office de la langue française)

1977an jarri zen martxan, Gutunaren 100. artikulua sorturik. Funtzionamendua 101. artikulutik 121. artikulura bitartean arautzen da:

100. Un Office de la langue française est institué pour définir et conduire la politique québécoise en matière de recherche linguistique et de terminologie et pour veiller à ce que le français devienne, le plus tôt possible, la langue des communications, du travail, du commerce et des affaires dans l'Administration et les entreprises.

Office de la langue française- Organigramme 2000-2001



Grafikoa ikusten denez, Frantses Bulegoaren zereginak 3 arlotan garatzen dira: enpresen frantseste prozesua (direction de la francisation), hizkuntzalaritza (direction des services linguistiques) eta administrazioa eta informazioa (direction de l'information et de l'administration). Horien artean enpresen frantseste prozesuari loturiko lana da garrantzitsuen. Izan ere, Bulegoak 200 langile inguru ditu, eta horietako erdien inguru dabilta arlo horretan lanean. Prozesu horretan –teoria mailan, behintzat- Bulegoaren zeregina enpresari laguntza ematea da. Errealitatean, berriz, hori ez da hain argi geratzen. Egia da, lan-arloa aztertzean ikusiko dugunez, enpresek frantseste-prozesuan hartutako konpromisoak ez betetzeak ondorio larriak eduki ohi ditu Bulegoaren lanean: askotan bere gain hartu behar ditu berari ez dagozkion hainbat zeregin eta horrek aurreikusitakoa baino interbentzio zuzenagoa izatera behartu ohi du.

Baliabide ekonomikoei dagokienez, Bulegoak 16.535.926,03 dolarreko aurrekontua eduki zuen 1999tik 2000era bitartean. Aurrekontu horretan Toponimia

Batzordeak gastatutakoa ere hartzen da kontuan, Frantses Bulegoaren eraginpean baitago.

Horra hor, bada, Frantses Bulegoa eta bere eginbeharra. Ikus dezagun, orain, Ikuskapen batzordea.

5.2.2. Ikuskapen batzordea (Commission de surveillance ou de protection de la langue)

Historikoki, Ikuskapen batzordea izan da arauak betearazteko eta isunak jartzeko ardura eduki duena. Izan ere, Gutunaren 157. artikuluan horrela aurreikusten da:

157. Est institué un organisme désigné sous le nom de Commission de protection de la langue française, chargé d'assurer le respect de la présente loi.

Batzordearen funtzionamendua eta zeregina Gutunaren 157. artikulutik 184. artikulura bitartean ezartzen da. Erakunde horretan lan egiten duten komisario-ikertzaileei askotan leporatu zaie polizia-lana egitea. Horri dagokionez, gobernuari beti interesatu zaio argi uztea Ikuskapen Batzordea ez dela Justizia Ministeritzaren bulego bat; aitzitik, behin eta berriro errepikatu du gizarte-mailako lege bat betearazteko erakunde bat baino ez dela.

Arestian aipatu denez, batzordea Frantses Bulegoaren eraginpean dago 1997an berriro martxan jarri zenetik. Zereginei dagokienez, Legeak inkestak egiteko ahalmena ematen die komisario-ikertzaileei, eta lanari ekingo diote Gutunean ezarritakoa betetzen ez denean. Kasu horretan –eta arau-hauslearekin hitz egin ondoren, konponbiderik ez dagoela ikusten bada– espediente bat zabalduko dute eta Prokuratote Nagusiari (procureur général) helaraziko diote, horrek zigor bidez jarraitzeko.

Hurrengo grafikoan ikusiko dugu Ikuskapen batzordeak iaz eta aurten erregistratutako arau-hausteen portzentajeak: espedienteen kopururik handiena produktuen etiketei eta iragarkiei dagokie. Izan ere, Hizkuntza Frantsesaren Gutunak oso arau zehatzak ezartzen ditu iragarki, etiketa eta merkataritzako publizitatean. Horri buruzko Gutunaren artikulua (51, 52, 58 eta 68) dira salaketa gehien jasotzen dituztenak.

Objets d'infraction dans les dossiers (du 2001-04-01 au 2002-03-31)		
	Nombre	%
QUALITÉ DU FRANÇAIS (114g)	46	1,1 %
ARTICLE 2 (Langue de l'administration)	223	5,2 %
ARTICLE 5 (Langue de service)	222	5,2 %
ARTICLE 51 (Produits, étiquetage, etc.)	1546	36,0 %
ARTICLE 52 (Catalogues, dépliants, etc.)	541	12,6 %
ARTICLE 52.1 (Logiciel, ludiciel)	188	4,4 %
ARTICLE 55 (Contrats.)	67	1,6 %
ARTICLE 57 (Bons de commande, etc.)	126	2,9 %
ARTICLE 58 (Affichage public et commercial)	527	12,3 %
ARTICLE 68 (Affichage de la raison sociale)	191	4,4 %
ARTICLE 139 à 151 (Programme de francisation)	97	2,3 %
RÈGLEMENT 21 - article 58 (Fonctionnement d'un appareil lieu public)	60	1,4 %
AUTRES	465	10,8 %
TOTAL	4299	100 %

Bestalde, batzordearen beste zereginetako bat hiritarren hizkuntzari buruzko kexak jasotzea da. Alde horretatik, interesgarria izan daiteke ikustea zeintzuk diren kexa gehien eduki dituzten lurraldeak:

Répartition des requérants par région Plaintes reçues entre le 2001-04-01 et le 2002-03-31	
Région administrative	Nombre de requérants
00 - Hors du Québec	4
01 - Bas Saint-Laurent	13
02 - Saguenay - Lac Saint-Jean	27
03 - Québec	95
04 - Mauricie - Bois- Francs	22
05 - Estrie	28
06 - Montréal	495
07 - Outaouais	63
08 - Abitibi-Témiscamingue	4
09 - Côte-Nord	5
10 - Nord-du-Québec	1
11 - Gaspésie-Îles-de-la-Madeleine	3
12 - Chaudière - Appalaches	16
13 - Laval	49
14 - Lanaudière	39
15 - Laurentides	53
16 - Montérégie	164
17 - Centre du Québec	7
Nombre total de requérants:	1088

Taulan ikusten denez, Montreal da kexa-kopururik ugariena jaso duen lurraldea, baina hori ez da harritzekoa haren ezaugarriak kontuan harturik: Montreal hirian eta inguruetan Quebeceko ingeles hiztun-kopururik handiena biltzen da; eta, gainera, biztanleriaren %17 etorkinak dira. Horrek azaltzen du kasu askotan Gutunean ezarritakoa ez betetzea.

Aipatzeko modukoa da, bestalde, Ikuskapen Batzordeak ikertutako kasuen %90 epaitegitik kanpo konpontzen direla, eta %0,5ean bakarrik egoten dela gaitzespena. Zeregin horiei aurrera eramateko, batzordearen aurrekontua nahiko handia da: 1999an, adibidez, 1.403.000 dolarrekoa izan zen.

5.2.3. Toponimia batzordea (Commission de toponymie)

Batzorde hau Gutunaren 122. artikuluan aipatzen da:

122. Une Commission de toponymie est instituée et rattachée administrativement à l'Office de la langue française.

Batzordearen funtzionamendua 122. artikulutik 128. artikulura bitartean zehazten da. Azpimarratu behar da batzorde hau Frantses Bulegoan eraginpean dagoela, eta presidente bera daukatela bietan. Hona hemen bere zeregina:

125. La Commission doit :

- a) proposer au gouvernement les normes et les règles d'écriture à respecter dans la dénomination des lieux*
- b) procéder à l'inventaire et à la conservation des noms de lieux*
- c) établir et normaliser la terminologie géographique, en collaboration avec l'Office*
- d) officialiser les noms de lieux*
- e) diffuser la nomenclature géographique officielle du Québec*
- f) donner son avis au gouvernement sur toute question que celui-ci soumet en matière de toponymie.*

5.2.4. Kontseilua (Conseil de la langue française)

Kontseilu hau Gutunaren 186. artikuluan aurreikusita dago:

186. Le Conseil de la langue française est institué pour conseiller le ministre sur la politique québécoise de la langue française et sur toute question relative à l'application de la présente loi

Kontseiluaren zeregina, beraz, gobernuari hizkuntza egoerari buruz informatzea eta aholkua ematea da.

Ageri denez, erraza da ikustea zer-nolako baliabideak dauzkaten Quebecen bere hizkuntza-politika abian jartzeko. Izan ere, 1998tik 1999ra bitartean, Quebecoko gobernuak 86.100.000 dolar gastatu ditu frantses hizkuntzaren arloan, frantsesa babesteko eta bultzatzeko, alegia. Kasu honetan dirua batzorde desberdinen aurrekontuan, etorkin eta herri autoktonoen artean frantsesa bultzatzeko, eta hainbat programa aurrera eramateko diru-laguntzetan gastatu zen.

5.3- Hizkuntza-politika: eragina arlo desberdinetan

5.3.1.-Errotulazio publikoa

Gutunaren VII. kapituluan legistaturik egon arren (51-71. artikulua), 1993/86 legea da errotulazio publikoari buruz indarrean sartu den azken araua. Beraren bitartez, Gutunean indarrean zegoen erregimena aldatu eta bigundu zen. Hona hemen zelan geratu den erregimena arlo honetan:

Iragarkietan frantsesaren presentzia beharrezkoa izan arren, beste hizkuntzaren bat agertzeko zegoen murrizketa bigundu da. Elebitasuna baimenduta dago bai denda barruan, bai kanpoan, baina lehentasuna eman behar zaio frantsesezko testuari, modu nagusiagoan ikusi behar da, alegia. Hona hemen Gutunaren 58. artikulua:

58. L'affichage public et la publicité commerciale doivent se faire en français. Ils peuvent également être faits à la fois en français et dans une autre langue pourvu que le français y figure de façon nettement prédominante.

Era berean, gobernuak erabakiko du egon daitezkeen salbuespenak. Halaber, artikulua ez da aplikatuko beste hizkuntza bati buruzko informazioa zabaltzen duten erakundeetan, ezta erlijioari, politikari edota laguntza humanitarioari loturik dauden iragarkietan

Elebakartasun frantsesari dagokionez, indarrean egongo da hesi publizitarioetan eta hiri-autobusetan, iragarki horiek frantses hutsean agertuko baitira.

Bestalde, nahiz eta izenari itzulpena gehitu, legeak dio sozietatearen izenak (raisons sociales) frantsesez egon behar direla.

Ageri denez, Quebecoko gobernuaren asmoa frantsesari *lehentasuna* (*langue prédominante*) ematea da, eta bakarrik bigunduko du jarrera hori hiritarren ziurtasunarekin, osasunarekin edo komertzioen martxa onarekin zerikusia duen zerbait sortzen bada. Bestalde, 58. artikuluan agertzen den lehentasun kontzeptua ulertzeko komenigarria da jakitea errotuloetan oso garrantzitsua dela frantsesez idatzitako testua beste hizkuntzaz idatzitakoa baino bi aldiz handiagoa izatea. Kontzeptua zehazteko quebectarrek arau bat onartu dute, Règlement précisant la portée de l'expression “de façon nettement prédominante” pour l'application de la Charte de la langue française delakoa, alegia. Arau horrek eztabaida asko sortarazi ditu eta behin baino gehiagotan aldatu behar izan dute frankofono eta anglofonoen arteko ituna posible izateko.

Edozein kasutan, quebectar askoren ustean legeak ondorioa izan du pentsaeraren aldaketan: egun gehienek frantsesa hartzen dute hizkuntza nagusitzat. Frogatzeko, bakarrik ikusi behar dira 1996an eta 1997an egindako inkestak (Léger & Léger 1996, Sondagem 1997). Bertan agerian geratzen da quebectarren %87,1ek frantsesak nagusia izaten jarrai dezala nahi dutela. Horrez gain, inkestetan ikus dezakegu %80,5ek uste dutela, nahiz eta Gutunak emandako babesa indartsua izan, Quebecen frantsesa mehatxaturik dagoela.

5.3.2.- Hezkuntza

Hezkuntzari dagokiona Gutunaren VIII. Kapitulan (72. artikulutik 88. artikulura) araututa dago. 72. artikuluan haur, lehen eta bigarren hezkuntzako derrigorrezko hezkuntza frantsesa dela azaltzen da. Printzipio hori aplikagarria da bai eskola publikoetan, bai gobernuak diruz lagundutako eskola pribatuetan:

72. L'enseignement se donne en français dans les classes maternelles dans les écoles primaires et secondaires sous réserve des exceptions prévues au présent chapitre. Cette disposition vaut pour les organismes scolaires au sens de l'Annexe et pour les établissements d'enseignement privés

agréés aux fins de subventions en vertu de la Loi sur l'enseignement privé (chapitre E-9.1) en ce qui concerne les services éducatifs qui font l'objet d'un agrément.

Agerikoa denez, Gutunak salbuespen batzuk onartzen ditu, horien artean zenbait umek hezkuntza ingelesez jasotzeko eskubidea: lehen hezkuntza ingelesez jaso zuten gurasoen seme-alabei ematen zaie eskubide hori, guraso horiek kanadarrak badira, edo 1977ko legea indarrean sartu baino lehen ingelesez ikasten ari ziren haurrei (73, 86. artikulua). Dena den, azpimarratzeko modukoa da batzorde berezi bat sortuko dela kasuak banan-banan aztertzeko eta erabakitzeko (76. artikulua).

Bestalde, eta herri autoktonoei dagokienez, Gutunean hezkuntza euren hizkuntzaz jasotzeko eskubidea onartzen zaie. Horrelako kasuetan ingelesa eta frantsesa bigarren hizkuntza bezala hartuko dira (87-88. artikulua).

Beste salbuespen batzuk honako hauek izango dira: ikasteko zailtasunak dauzkaten haurrak (81. artikulua), zailtasun horiek ofizialki egiaztatuta badaude; Quebeceko behin behineko egoiliarren seme-alabak eta nazioarteko erakundeen funtzionario eta diplomatikoen seme-alabak (85. artikulua).

Puntu honekin amaitzeko esango dugu Gutunaren ondorio zuzena izan dela etorkinek beren seme-alabak eskola frantsesera bidaltzea. Ondorio hori Montrealen ere ikusi ahal da:

« Finally, the most radical impact of Bill 101 on Montreal's French-language schools has been to introduce a function that urban schools throughout the United States and English Canada have performed since the mid-nineteenth century: integrating newcomers into the language and culture of the city's majority. As we have seen, through the mid-1970s, almost all of Montreal's ethnic minorities enrolled in English-language schools and the Island's French-language schools were composed almost exclusively of French Québécois. However, by 1987, as a result of Bill 101's impact on Allophone enrollments, the clientele in French-language schools was over 25 percent non-francophone and over 35 percent were not of French-Québécois ethnic origin. » (Marc Chevrier. De lois et des langues au Québec, 1997)

5.3.3.- Lan-arloa

Hizkuntza Frantsesaren Gutunaren artikuluen artean heren bat dagokio laneko hizkuntzari (enpresa, administrazio publiko eta elkargo profesionalen esparruei). Datu horrek argi adierazten digu Quebeceko hizkuntza-politikan lan-munduari aitortzen dioten garrantzia.

Gutunak lan-munduaren baitan enpresa-arloari eskaintzen dizkion atalak honako hauek dira.

Lan-hizkuntza 4. artikulutik 50. artikulura

Barne-komunikazio eta langileen kontratazioari buruzko betebeharrak ezartzen ditu. Betebehar horiek unibertsalak dira, hau da, enpresa guztiek bete beharra daukate, langile-kopurua kontuan hartu gabe.

-Frantseste-prozesua. 139. artikulutik 154.era artikulura bitartean legeztatuta dago, eta bertan Frantseste-ziurtagiria lortzeko betebeharrak ezartzen dira. Betebehar hau 50 langiletik gorako enpresentzat ezartzen da.

-Frantseste-batzordea. 136. artikulutik 138. artikulura

Enpresako 6 pertsonak osatzen dute batzordea eta horien artean herena langileen ordezkariak dira. Frantseste-prozesuan batzordeak dituen funtzioak ere ezartzen ditu. Betebehar hau 100 langiletik gorako enpresentzat ezartzen da.

-Banakako hitzarmenak. 144. artikulua

Enpresa handien egoitza nagusi edota ikerketa-zentroekin banakako hitzarmenak bideratzeko aukera eskaintzen du Gutunak. Hitzarmen horien bidez, baldintza bereziak ezartzen dira frantsesa ez den beste hizkuntza bat erabili ahal izateko hainbat zereginetan.

-50 langile baino gutxiago dituzten enpresak. 151. artikulua

Ezaugarri horiek dituzten zenbait enpresari, frantseste-programa betetzeko beharra ezar diezaioke Frantses Bulegoak artikulua honen arabera: izan ere, 26 eta 49 langile bitarteko enpresetan aplikatzen da, enpresa handiagoetarako diseinatua duten antzeko prozesua erabiliz, baina egokitzapenak eginez. Orokorrean, 10 eta 50 bitarteko langile-kopurua duten enpresentzat zenbait neurri martxan jartzeko laguntza

finantzarioak eta langileentzako frantses-ikastaroak bideratzen dituzte. Interbentzio-mota hau bereziki sektoreka planifikatzen dute.


Arestian esan bezala, 50 langiletik gorako enpresa guztiei ezartzen die legeak frantseste-ziurtagiria lortzeko betebeharra. Langileen kopuru horretatik gorako 4.600 enpresa inguru ditu Quebecen eta horien artean 3.300 dira ziurtagiria eskuratu dutenak, % 70, alegia.

Ziurtagiria lortzeko honako esparru hauei buruzko betekizunak ezartzen ditu Gutunak:

1. Hizkuntza ofizialaren ezagutza enpresako maila guztietan: zuzendari, profesional eta langileen artean.
2. Beharrezkoa bada, frantsesa ondo ezagutzen duten maila guztietako pertsonen kopurua handitzea. Legeak espresuki aipatzen ditu administrazio-kontseiluko kideak ere artikulatu honetan.
3. Lan-hizkuntza eta barne-komunikazioetarako hizkuntza frantsesa izatea.
4. Laneko dokumentuetan frantsesa erabiltzea, eskuliburuak eta katalogoak aipatzen dira.
5. Kanpo-komunikazioetan frantsesa erabiltzea, administrazioa, bezeroak, hornitzaileak, publiko orokorra eta akziodunak aipatzen dira.
6. Terminologia frantsesa erabiltzea
7. Errotulazioan eta publizitatean frantsesa erabiltzea.
8. Informazio-teknologietan frantsesa erabiltzea.

Ziurtagiria lortzeko prozesua bera ere jasota dago legean.

50 langilelik gorako enpresak frantseste-ziurtagiria lortzeko prozesua



Iturria: Salva I. E. (2000)

Hizkuntza frantsesaren Gutunaren helburua frantsesa Quebecen laneko, merkataritzako eta negozioetako hizkuntza arrunt eta ohiko bihurtzea da. Horretarako definitzen duen tresna frantseste-prozesua da, eta bere helmuga frantseste-ziurtagiria eskuratzea da. Ikus dezagun prozesu horren emaitzak zeintzuk izan diren eta, zein neurritaraino izan den orain arte eraginkorra azken helburua eskuratzeko.

Hasteko, jakin behar dugu 1980-1990 bitartean ziurtagiria lortu zuten enpresen kopuruak gora egin zuela erritmo on eta erregularrean. 1991-1999 bitartean, berriz, erritmoa mantsotu egin da.

Joera horren arrazoietakako bat hauxe izan daiteke: hainbat enpresak legea ezartzen hasi baino lehen landuak zituzten frantseste-ziurtagiria lortzeko ezarri ziren baldintzak. Horrelakoetan, ziurtagiria errealitate bat egiaztatu eta agiri bidez dokumentatzea besterik ez zen. Enpresa horien artean, langileen kopurua ez zen hain handia eta, gehienetan, administrazio-kontseilua frankofonoek osatzen zuten. Bigarren hamarkadan, aldiz, enpresa handien proportzioa handiagoa da jabeen artean anglofonoek edota alofonoek proportzio handiagoa dute eta harreman komertzial

handiagoa dute atzerriko enpresekin. Multzo honetako enpresekin negoziazioa zailagoa eta konplexuagoa da.

Bestalde, goiko grafikoko epemugak dira legean aurreikusten direnak, baina ez dira beti betetzeko errazak. Esaterako, Frantses Bulegoak bere kezka adierazi du 250 enpresako multzo batek 10 urte baino gehiago daramalako 2. urratsean, hau da, ziurtagiria lortzeko programa lantzen, baina ziurtagiria lortu gabe. Enpresa horien %95ean egoitza nagusia Quebecetik kanpo edo Montreal-en dago. Gogora dezagun Montreal dela populazio handiena duen eta anglofonoen portzentajea handiena duen Quebecoko hiria.

Gai honi buruz dagokionez, Bernard Salvail-ek, Frantses Bulegoko frantseste-zuzendariak, *Expériences et projects pour le suivi des programmes de francisation au Québec* (2000) delako txostenean azaldu du ziurtagiria lortu duten enpresen artean frantsesak ohikotasun-maila gutxi edo gehiago lortu duela, baina horrek ez duela esan nahi enpresaren arlo guztietan maila berean erabiltzen denik. Are gehiago, enpresek ziurtagiria lortu eta hiru urtera egindako txostenean, askotan hauxe ikus daiteke *“les acquis n’ont pas été maintenus et que la situation du français a régressé tant du point de vue du statut que celui du corpus”*.

Txosten horretan, gai honi buruz egin diren hainbat ikerlanak kontuan hartu eta gero, ondorio honetara heltzen da:

“...Tous en sont arrivés à la conclusion que “certification” et “utilisation du français” ne s’équivalent pas nécessairement, et qu’un certificat de francisation ne prouve pas que le personnel de l’entreprise utilise le français de façon réelle et continue. Il est tout au plus “un préalable à un fonctionnement en français, à la vie en français”. Il faut cependant se garder de conclure que la certification n’a pas eu d’effets considérables sur l’utilisation du français par tous les membres du personnel des entreprises” (Bernard Salvail, Expériences et projects pour le suivi des programmes de francisation au Québec, 2000)

Beraz, diseinatutako frantseste-interbentzioak frantsesaren erabilera areagotu egiten du enpresetan, nahiz eta bide horretan aurrera egin ahala, erronka berriei aurre egin behar izan. Ondorengo datuek ere horixe baieztatzen digute.

Frantsesaren erabilera nagusi (ehunekotan)		
	Ziurtagiria eskuratu ez duten enpresetan	Ziurtagiria eskuratu duten enpresetan
Dokumentu inprimatueta eta oharretan (paretetan edota ohar-tauletan jartzekoetan)	62	82
Inprimakiak betetzean eta komunikazio idatzietan	67	87
Ahozko komunikazioetan	65	82
Softwarean	26	49

Iturria: Salvail, B. (2000)

Taula horretako datuak 1995ean Montréal-eko eskualdeko enpresetan egindako azterketa baten ondorio dira, eta bertan ikus daitekeenez, ziurtagiria eskuratu duten enpresetan frantsesaren erabilera askoz ere zabalagoa da ziurtagiria lortu ez duten enpresekin alderatuz.

Bada azpimarratu behar den beste alderdi bat: legearen arabera 100 langile baino gehiagoko enpresetan osatu behar den frantseste-batzordearen egitekoena. batzordearen zereginak honako hauek dira: batetik, hasierako azterketa egin eta txostena aurkeztu enpresaren zuzendaritzari, honek Frantses Bulegoari pasatzeko. Bestetik, eta beharrezkoa denean, frantseste-programa landu eta aplikazioaren jarraipena egin. Azkenik, enpresak frantseste-ziurtagiria eskuratu ondoren, lortutako mailari eusteko jarraipena egin. Arestian aipatu da (puntu honen hasieran), prozesu horretan –teoria mailan, behintzat- Bulegoaren zeregina enpresari laguntza ematea dela. Baina errealitatean hori ez da hain argi geratzen. Izan ere, frantseste-batzorde askok ez dute beren konpromisorik betetzen eta beren ordeiz Frantses Bulegoak hartu behar du ardura.

Horra hor, bada, lan arloan legeriak arautzen duena.

5.3.4.- Anglofonoen egoera

Hizkuntza Frantsesaren Gutunaren helburuetako bat da frantsesa administrazioan eta gainontzeko erakundeetan (ospitaletan, osasun-zentroetan, eskola-batzordeetan, udalerrietan....) ohiko hizkuntza bihurtzea. Beraz, orokorrean, administrazioan eta

erakundeetan indarrean dagoen araua frantsesa erabiltzea izango da, eta ingelesa bakarrik erabiliko da bezeroek horrela eskatuta.


Gutuna indarrean sartu baino lehenago, anglofonoek beren erakunde propio zeuzkaten ahalik eta zerbitzu gehien ingelesez eskaintzeko: ospitalak, eskola-batzordeak, ikastetxeak, unibertsitateak, eta abar. Bestalde, eurek arduratu dira betidanik horien administrazioaz eta hobekuntzaz. Alde horretatik, Gutunak ez du zalantzan jarri erakundeen jarraipenik, edo haren hezkuntzaz aritzeko bezeroak daukan eskubidea. Gutunak ziurtatu nahi duena zera da: batetik, quebectarrek kalterik ez jasotzea zerbitzuak frantsesez ez izateagatik; eta bestetik, gobernuaren jendeaurreko ekitaldiak frantsesez soilik, edo beste hizkuntza batez eta frantsesez ere izatea.

Izan ere, Gutunak pribilegio batzuk onartzen dizkie udalerriei, eskola-batzordei edota osasun/gizarte-ongizate-zerbitzuei frantsesarekin batera, beste hizkuntza bat ere erabiltzeko. Pribilegioak abian jarriko dira frantses hiztunak gehiengoa ez badira. Anglofonoek ere, beraz, badauzkate lege hori praktikara eramateko eskubidea.

Hona hemen ingeles hiztunen kasua: aldezturik, erakunde eta zerbitzuak Frantses Bulegoak onartuak izan behar dira, eta horrela barruko funtzionamendua bere erara antolatu eta frantsesarekin batera, ingelesa ere erabili ahalko dute. Pribilegio horrek ez du erakunde elebidunak sortzeko helburua, pribilegio horren bitartez lortzen dena honako hau da: erakunde horietako iragarkiak frantsesez eta ingelesez ere (baina frantsesa izan behar da nagusi) agertu ahal izatea, edota barruko komunikazioetan edo onartuta dauden beste erakunderekin izandako komunikazioetan frantsesa erabiltzeaz gain, ingelesa ere erabili ahal izatea. Dena den, frantses hiztunak atenditzen dituzten erakundeek frantsesa soilik erabili ahalko dute, eta zerbitzu elebidunak eskainiko dituzte bezeroen ezaugarriek horrela eskatzen badute.

Estatistiken arabera, Montrealeko eta Estrieiko (Quebeceko ekialdean dagoen lurralde bat) 107 udalerrik daukate pribilegio hori; beste horrenbeste esan dezakegu 19 eskola-batzorde eta 83 osasun/gizarte ongizateko zerbitzuez. Dena den, Quebeceko gobernuak erakunde guztiei emandako diru-laguntza, horiei ere ematen zaie, Quebecen osasuna eta hezkuntza gobernuak finantziatutako zerbitzuak baitira.

Hona hemen Quebecen aurki dezakegun banaketa ingelesa eta frantsesari begira:



Laburbilduz, Quebecoko egungo legeak anglofonoen eskubide batzuk onartzen ditu: osasun eta gizarte ongizateko zerbitzuak ingelesez jasotzeko eskubidea daukate. Eskubide horiek bermatzeko, gobernuak, 1993an kontsulta-batzorde bat sortu zuen. Bertako 11 kideak anglofonoak dira, eta bere lana gai honetan egon daitezkeen kexak eta iradokizunak jasotzea da. Kexa horien artean, aipatzeko modukoa da Alliance Québec erakundeak Quebecoko legelbiltzarrari aurkeztutako txostena. Bertan Quebecoko anglofonoen kezkak jasotzen dira, lau ardatzetan bildurik: udal-erakundeen eta eskuratutako eskubideen babesa; enplegua lortzeko aukerak eta gazteen prestakuntza; osasun-zaintza eta gizarte-zerbitzuak ingelesez izateko aukera; eta eskola ingelesa izateko aukera. Izan ere, anglofonoek beren eskubideak murriztuta daudela ikusten dute, eta uste dute bere komunitatearen geroratzea ziurtatzeko beharrezkoa dela Quebecoko hizkuntza-politikan. Gutunean hain zuzen, aldaketa batzuk egitea, aipatutako arloetan anglofonoen eskubideak eta frankofonoenak berdinak izan daitezen. Hona hemen emandako arrazoiketa:

... azpimarratzea merezi du hizkuntza frantsesa garatu eta hedatu egin dela 101. Legea (Gutuna, alegia) onetsi zenetik. Etorkizunera begiratzeko ordua da, Quebecoko biztanle guztien

oparotasun ekonomiko, sozial eta kulturala ziurtatzeko lanean hasteko ordua. (BAT Soziolinguistika aldizkaria, 2001eko iraila, 40. zb)

Ez dago esan beharrik, momentuz Quebecoko gobernuak ez duela egin eskatutako Gutunaren egokitzapen hori, eta, momentuz, anglofonoak gutxiengoaren eskubideekin konformatu behar direla.


5.3.5.- Jatorrizko hizkuntzak

*J'estime que si le gouvernement avait eu pour
notre langue indienne autant de respect qu'il
en a pour sa propre langue française, au
moment où il a commencé à donner une
éducation blanche aux enfants indiens, il
aurait probablement fait de sérieux efforts
pour éviter de tuer leur langue indienne.*

An Antane KAPESH,
*Montagnaise originaire de
la région de Matimekossh¹.*

Québec-eko eta orokorrean, Kanadako jatorrizko hizkuntzak (langues autochtones) egoera larrian daude, gehienak desagertzeko mehatxupearan bizi baitira. Egoera horri azalpena aurkitzeko ez dugu historiara jo behar, urteetan egon den administrazio eta hizkuntza-politikara baino. Puntu honetan errepaso laburra egingo diegu Kanadan eta Quebecen gai honetan indarrean egon diren irizpideei. Izan ere, indiarrez hitz eginez gero, ezinezkoa da Quebecoko gobernuaren politika aipatzea Kanadako aipatu gabe, urte askotan Quebecen egon den jarrera gobernu federalaren politika jarraitzea izan baita, arlo honetan erantzukizunik izan nahi ez duelako.

Hasteko, hona hemen Kanadan aurkitzen dugun jatorrizko hizkuntzen mapa, hizkuntza-taldeak aurkezturik:



Mapan agerian geratzen denez, hizkuntza autoktonoak sakabanaturik eta ingelesak eta frantsesak inguraturik daude, hizkuntza indartsuek inguraturik, alegia. Gainera, hizkuntza autoktonoen hiztunak gutxi dira eta pisu demografiko txikia daukate Kanadan. Zalantzarik gabe egoera horrek ondorioak izan ditu jatorrizko hizkuntza bakoitzaren bilakaeran eta iraupenean.

Hona hemen hiztunei buruzko datuak:

Viability of Native North American Languages in Canada	
Migrated but:	Gros Ventre*
Extinct:	1. Beothuk -
	2. Laurentian
	3. Huron-Petun - 1,205
	4. Neutral-Erie
	5. Nicola
	6. Tsesaut

Closeto Extinction: (less than 10 speakers)	1. Nitinat - 422 2. Comox - 1,534 3. Oneida* - 3,260 4. Abnaki-Penobscot - 694 5. Tagish - ? 5. Tuscarora* - 841 7. Potawatomi* - 998 8. Delaware* - 999
Threatened by Extinction: (10 - 100 speakers)	1. Kutenai* - 446 2. Bella Coola - 730 3. Seneca-Cayuga-Onondaga* - 3,680 4. Naskapi - 589
Fairly secure: (101 - 1,000 speakers)	1. Tsimshian - 3,452 2. Niska - 2,892 5. Gitksan - 3,149 4. Haisla-Kitimat - 989 5. Bella Bella-Heiltsuk - 1,424 6. Kwakiutl - 3,155 7. Nootka - 3,753 8. Lillooet - 2,961 9. Shuswap - 4,347 10. Thompson - 3,023 11. Okanagan-Sanpoil-Colville-Lake - 1,753
	12. Squamish* - 1,430 13. Songish-Lummi-Clallam* - 1,443 14. Assiniboine - 1,376 15. Mohawk* - 16,640 16. Ottawa - 1,874 17. Algonquin - 4,648 18. Malecite-Passamaquoddy* - 694 19. Haida - 1,560 20. Tlingit* - 522 21. Loucheux-Kutchin* - 2,600 22. Nahani (Tanana-Koyukon-Han-Tutchone)* - 1,305 23. Dogrib-Bear Lake-Hare - 2,461 24. Tahltan-Kaska - 793 25. Sekani-Beaver-Sarsi - 2,197 26. Dakota* - 6,517
Secure: (more than 1,000 speakers)	1. Cowichan - 7,118 2. Blackfoot - 9,875 3. Ojibwa-Saulteaux* - 62,545 4. Cree - 92,664 5. Montagnais - 6,987 6. Micmac* - 11,525 7. Chipewyan-Slave-Yellowknife - 11,097 8. Carrier-Chilcotin - 7,204 9. Inuktitut* - 18,000

(Price, John A. *The Viability of Indian languages in Canada*, 1980)

Datuek erakusten digute hizkuntza autoktono askoren egoera oso larria dela. Egia da, 1991ko ikerketen arabera, 60 hizkuntzetatik 8 hilda zeuden 1990erako, beste 13 hiltzorian (hiztun guztiak 50 urtetik gorakoak) eta 23 oso larri (haurrek ikasten ez dituztelarik). Horiek guztiak 40-50 urteren buruan desagertuta egongo dira.

Arestian aipatu denez, egoera hori hizkuntza-politikaren fruitua da. Azter dezagun, beraz, 1867tik 1990era bitartean aurrera eramandako hizkuntza-politika, bai Kanadan, bai Quebecen:

1867tik 1973ra bitartean gobernu federalak eduki du indiarren eta inuiten administrazioaren erantzukizuna, eta denbora horretan bere politika herri horiek Kanadako gizartean asimilatzea izan da. Lortzeko derrigorrezko hezkuntza ingelesez edo frantsesez inposatu, eta jatorrizko kulturak eta hezkuntzak desagertarazten saiatu da.

Izan ere, 1867an L'Acte de l'Amérique du Nord britannique delako dokumentuak gobernu federalari indiarren eta beren lurraldearen gaineko konpetentzia guztiak eman zizkion. Harrezkero, arlo guztiak administratzeko legeak indarrean sartu ziren, eta horien bitartez asimilazioa nahiko azkarra izan zen. Garai hartan indiarren hezkuntza elizaren eskuetan geratu zen. Elizak indiarrek ingelesez edo frantsesez hezteko gobernuaren diru-laguntzak jasotzen zituen.

XX. mendearen hasieran, administrazio federala politika horren porrotaz konturatu zen. Ondorioz, estrategia aldatu eta helburu berria indiarrek bizimodu zibilizatu baterako prestatzea izan zen, baina gainontzeko biztanleriarekin nahasteko presarik gabe. Ildo horretatik, indiarrentzako derrigorrezko hezkuntzari buruzko lege asko onartu ziren, baina indiar gehienek ez zuten bete.

1940ko hamarkadatik aurrera, Kanadak berriro dekretatu zuen “integratzeko” politika: garai hartan indiarren eskolarizatzetasa areagotu arren, politika horren bitartez, ingelesa eta frantsesa inposatzen jarraitu zen. Eskola gutxi eman zuten jatorrizko hizkuntzak erabiltzeko aukera; eta, ematekotan, erlijioa irakasteko baino ez zen ematen.

Aurrera eramandako aldaketok, berriz, ez ziren eraginkorrak izan: indiarrek hezkuntza politika horren aurka protestak egin, eta indarrez defendatu zituzten euren kulturak eta hizkuntzak, baina lurralde zabal batean sakabanaturik, baliabide ekonomikorik gabe, eta bere defentsarako erakunde eraginkorrik gabe, indiarrek kultura eta hezkuntzaren galera handia jaso zuten.

Egoera ulertzeko, nahikoa da 1969ko Livre blanc du gouvernement fédéral sur la politique indienne delako araua aztertzea. Bertan gomendio batzuk egiten dira: herri autoktonoei estatus juridikoa kentzeko, sinatutako hitzarmenak indargabetzeko, indiarrei babeslekuak mugatzeko eta indiarrei beren kulturak eta hizkuntzak zaintzeko erantzukizuna emateko, baina gobernuaren diru-laguntzarik edota baliabiderik jaso gabe.

Liburu Zuri horrek sortarazi zituen protestak ugariak izan ziren; eta ondorioz, gobernu federalak hezkuntza politika bigundu behar izan zuen, 1973tik aurrera tribuei

erantzukizun batzuk eman zitzaizkielarik: irakasle autoktonoak prestatzeko proiektu bat, eta indiarren kulturarekiko eta hizkuntzekiko errespetu handiago zeukaten programa batzuk sortu ziren.

Bi faktore izan ziren garrantzitsuak gobernuaren politikaren aldaketa honetan:

a) herri autoktonoen antolamendua: Fraternité des Indiens du Canada delako erakundean bildurik, indiarrek jatorrizko hizkuntzak eta kulturak irakasteak zeukan garrantzia aldarrikatu zuten; halaber, gobernuari diru-laguntzak eskatu eta prozesu guztiaren ardura erreklamatu zuten.

b) 1971tik aurrera, Kanadak multikulturalismoaren politika jarri zuen martxan. Horrek ondorio batzuk ekarri zituen. Batetik, gutxiengo etnikoen ekarpenak onartzen ziren; bestetik, politika horri esker gobernu federalak diru-laguntzen programa bat jarri zuen martxan, batez ere jatorrizko hizkuntzak babesteko eta beren erabilera areagotzeko.

Halaber, azken hamarkadan aurrerapen ugari gertatu omen da Kanadan hizkuntza autoktonoen inguruan. 1988an, esaterako, Northwest Territories izeneko eskualde berriak bertako sei hizkuntza izendatu zituen ofizial: inuktitut, slavey, gwich'in, chipewyan, cree eta dogrib –ingelesezko izenak-. Begi bistakoa denez, poliki-poliki bada ere, gauzak aldatuz doaz.

Quebeceko gobernuari dagokionez esan behar da hasieran oso papera urria jokatu zuela. 1975-78tik aurrera, berriz, bi batzar egin ziren -Convention de la baie James et du Nord québécois, et la Convention du Nord-Est- eta bertan iparraldeko indiarren (kritarrak, inuitarrak eta naskapitarrek) administrazioari buruzko hainbat erantzukizun onartu zituen. Kanadakoarekin alderatuz, Quebeceko autoktonoen hezkuntza politikan desberdintasun batzuk aurki ditzakegu, batez ere, lehen hezkuntzako programetan jatorrizko hezkuntzen erabilera baimentzen delako (kritarren, inuktitutarren eta naskapitarren), edota eskolen ardura indiarrei ematen zaielako.

Bestalde, 1977ko Hizkuntza Frantsesaren Gutunean jatorrizko kulturak eta hezkuntzak garatzeko eskubidea onartu zitzaien indiarrei; eta hezkuntzari zegokionez, jatorrizko hizkuntzen erabilera baimentzen zen.

1980ko hamarkadan Quebeceko gobernuak interes handiago erakutsi zuen bere lurraldeko indiarrengan. Horrela, 1980an Attikameks-ekin eta Montagnais-ekin izandako negoziaketan, Quebeceko gobernuak eskubide batzuk onartu zituzkien:

“...de disposer d’eux-mêmes pour tout ce qui touche directement leur identité culturelle” eta “d’avoir vis-à-vis les institutions d’éducation leur philosophie spécifique”. (Bulletin du Conseil de la langue française, volume 35. La politique des gouvernements du Canada et du Québec en matière de langues autochtones, Francois Trudel)

Dena den, onartze horretan sekula ez zen “hizkuntza” hitza zuzenean aipatu. 1982ko Quebecoko Eskubide eta Askatasunen Gutunaren (Charte québécoise des droits et libertés de la personne) 45.artikuluak, eskubide batzuk onartu zitzaizkien gutxiengo etnikoei: *“le droit de maintenir et de faire progresser leur propre vie culturelle avec les autres membres de leur groupe”*. Agerikoa denez, artikuluan esandakoa hizkuntzari ere aplikatu zekiokien.

1983an eta autoktonoen koalizioaren eskaerei erantzuteko, Quebecoko gobernuak 15 xedapen onartu zituen. Xedapenok, berriz, lege quebecarren eraginpean geratu ziren. Lehen xedapenean herri autoktonoak “herri diferenteak” zirela, eta ondorioz beren kultura, hizkuntza eta ohiturak edukitzeko eskubidea zeukatela onartzen zen. Zazpigarren xedapenean nazio horiei kultura, hezkuntza eta hizkuntza arloetan bere erakunde propioak edukitzeko eta administratzeko eskubidea onartzen zitzaien. Halaber, zortzigarren xedapenean herri autoktonoek beren helburuak lortzeko gobernuaren diru-laguntzak jasotzeko eskubidea onartzen zen.

Xedapenok 1983an onartu arren, 1989ra arte Quebecoko gobernuak ez zuen gai honi buruzko aldarrikapen ofizialik egin. Urte hartan Maintien et développement des langues autochtones au Québec deituriko dokumentua argitaratu zuen. Dokumentu horretan kultura, identitatea eta herrien iraupenarentzat hizkuntzek daukaten garrantzia azpimarratzen zen, eta beste 3 xedapen onartzen ziren:

- jatorrizko hizkuntzen berdintasuna onartu eta babesgarritzat eta bultzagarritzat hartzen zituen.

- jatorrizko herriei beren hizkuntzak babesteko eta aberasteko eskubidea onartzen zitzaien.

- Quebecoko gobernuak jatorrizko hizkuntzak ikasteko diru-laguntzak onartzen zituen.

1989ko dokumentu horren bitartez, gobernuak ofizialki onartu zituen jatorrizko hizkuntzen legimititatea eta balioa; halaber, heredentzia kultural hori babesteko garrantzia aintzat hartzen zen; eta, azkenik, herri autoktonoen alde lan egiteko

erakundeak sortzeko eta mantentzeko hitza ematen zen, beti ere gobernuaren eraginpean zeudelarik.

Onarpen horien ondorioz, Quebecek baliabide ekonomiko batzuk eman zituen gai hau aurrera eraman ahal izateko: azken urteotan gobernuak 5.250.000.-dolar bideratu ditu arlo honetan hainbat programa garatzeko: hezkuntza, itzulpenak, hiztegiak, toponimia-ikerketak, iratiak... Dena den hori ez da nahikoa, baina Quebecek – momentuz- ez du diru gehiago eskaini, gobernuaren politikan jatorrizko hizkuntzek betetzen duten lekua nahiko urruna eta zehaztu gabekoa baita.

Izan ere, indiarrek Quebeceko biztanleriaren %1 besterik ez dira, sakabanaturik bizi dira talde askotan, bakoitzak bere egoera desberdina duelarik. Nahiz eta presioa egiteko ahalmena eduki, horrek zenbait kontsezio lortzeko bakarrik balio du, eta ez biharko egunean zer izango diren eta zer izango duten erabakitzeko.

Horregatik da hain zaila beren etorkizuna iragartzea.

6.- KANADAKO GOBERNUAREN HIZKUNTZA-POLITIKA

Ezin da Quebecen frantsesak daukan egoera ulertzea, Kanadako hizkuntza-politika kontuan hartu gabe, federazioak konpetentzia zabalak baititu gai horretan. Bi hizkuntza-politika desberdin horiek egoteak, bakoitzak bere oinarria eta printzipioekin, askotan elkarlanik ez egotea eta emaitzarik ez lortzea ekarri du. Are gehiago, behin baino gehiagotan gertatu da politika batek bestearen aurka jokatzeari, edota batek eginiko ahaleginak, besteak indargabetzea. Erraz ulertuko denez, egoera hori istilu askoren iturria izan da.

Gai honetan Kanadak daukan jarrera aztertzeko, bere hizkuntza-politika zein legetan oinarritzen den, eta zein izan den administrazioaren jokabidea ikusiko dugu:

1969an indarrean sartu zen Hizkuntza Ofizialei buruzko Legeak (Loi sur les langues officielles) ingelesa eta frantsesa onartzen zituen hizkuntza ofizialtzat Kanadan. Horren ondorioz, derrigorrezkoa izan zen hizkuntza biak erabiltzea legeak argitaratzeko orduan, administrazioan eta epaitegietan. Hitz batean esateko, Federazioko administrazioa zerbitzu elebidunak eskaini behar zituen 1969ko legea betetzeko. Halaber, lege horrek akusatuen eskubideak zehazten zituen, epaiketetan haiek aukeratutako hizkuntzaren erabilera bermatuz.

1988an Hizkuntza Ofizialei buruzko lege berri bat onartu zen. Bertan anglofonoei eta frankofonoei eskubide gehiago aitortu, eta indarrean zeudenak zehazten ziren. Lege berri horren arabera, esaterako Epaitegi Gorenean izan ezik federazioko gainontzeko epaitegietan epaileak akusatuaren hizkuntza ulertu beharko zuen itzultzaile batengana jo gabe, beti ere hizkuntza hori frantsesa edo ingelesa bazen, jakina. Beste adibide bat: legeak esaten zuen federazioko bulegoek zeukaten zerbitzu elebidunak emateko betebeharra, atzerrian ere bete beharko zela.

1988ko Legea indarrean sartu baino lehen, 1982ko Kanadako konstituzioaren erreformak hizkuntzari buruzko printzipio batzuk ezarri zituen. Gogora dezagun Quebecen ezin izan zuela erreforma horretan parte hartu:

- Bai frantsesa, bai ingelesa hizkuntza ofizialtzat hartu ziren gobernuan eta legebiltzarrean.
- Elebitasuna aldarrikatu zen legeetan eta justizia-prozeduretan.
- Federazioko administrazioarekin ingelesez edo frantsesez komunikatzeko hiritarren eskubidea onartu zen.

- Federazio osoan gutxiengo anglofono eta frankofonoei beste eskubide bat onartu zitzaien: umeak gurasoek aukeratutako hizkuntzaz eskolarizatuko ziren.

Printzipio horiek aurrera eramane ziren gobernuaren ekintza batzuekin batera.

Hona hemen aipagarrienak:

- Federazioko administrazioak elebitasunaren alde jokatu zuen, bulegoetan funtzionario frantses gehiago jarritz.
- Ordurarte ingelesez bakarrik egiten ziren dokumentuak, frantsesera ere itzultzen hasi ziren.
- Funtzionario anglofonoei frantsesa ikasteko erraztasunak eman zitzaizkien.
- Diru-laguntzen programa zabala sortu zen gutxiengoen ekintzak aurrera eramateko, horien artean, ingelesa eta frantsesa bigarren hezkuntzatzat ikasteko programak.
- Diru-kopuru bat jarri zen gutxiengoen eskura beren kexak eta eskaerei erantzuna emateko.

Kanadako hizkuntza-politikan adituak direnek honako ezaugarri hauek azpimarratu dituzte:

- Nahiz eta politika horren helburuetako bat gutxiengo frankofonoek jasotako injustiziak konpontzea izan, ez da ezer lortu. Are gehiago, politika hori bitarteko garrantzitsua izan da Quebecoko mugimendu nazionalistaren aurka jokatzeko, eta independentziaren aldeko joerei aurre egiteko.
- Kanadako hizkuntza-politika gizakiaren eskubideetan oinarritzen da; izan ere, politika horrek onartzen dituen eskubideak gizakiari loturik daude, eta ez hizkuntza komunitateei. Jarraitu den eredu Hegoafrikakoa izan da, nahiz eta Suitza edo Belgikakoa –lurraldea kontuan hartzen dutenak- hobeak izan.
- Bestalde, politika horrek kultura eta hezkuntza desberdintzen ditu: bi hizkuntza ofizialak onartu arren, kultura ofizialik ez dagoela azpimarratzen da..
- Babes bera edo “simetrikoa” ematen zaie bi hizkuntza ofizialei, baina kasu bakoitzaren egoera kontuan hartu gabe.

Azaldutako politikari egin zaizkion kritikak ugariak dira. Orokorrean, onartu egiten da ingelesak eta frantsesak daukaten koofizialitateak frantsesaren estatusa jaso duela. Gainera, begi bistakoa da gobernuak hartutako neurriek frantsesaren erabilera areagotu dutela administrazioan.

Dena den, frankofonoak ez diren probintzietan arazo handiak egon dira politika hori aurrera eramateko. Politikari askok gogor kritikatu dute elebitasuna, aurrera eramateak diru gehiegi “alferrik” galtzea baitakar, eta askotan errepikatu dute gobernuaren hizkuntza-politika ez dela eraginkorra.

Ikuspuntu zientifikotik begiraturik, aditu batzuek azpimarratu dute hizkuntza-politikaren oinarrian gizakia egoteak eta kultura eta hizkuntza kontzeptuen artean desberdintzeak, komunitateei kalte handia egiten diela hizkuntza eta kultura horiek transmititzeko orduan.

Bestalde, ezin da ahaztu Kanada etorkin asko jasotzen dituen estatua dela. Soziologo batzuen ustean Quebeceko gobernuaren politikak nahasi egiten ditu etorkin horiek; izan ere, ez dakite non eta nola integratu kultura eta hizkuntza konkretu bakarra aurkitzen ez baitute.

Azkenik, aditu askok uste dute bi hizkuntza ofizialei eskainitako babes “simetrikoa”-k kalte handia eragiten diola frantsesari, bi hizkuntzen egoera oso “asimetrikoa” baita. Aditu horien iritziz, babes horrek injustizia baino ez du ekartzen.

Praktikak erakutsi digu Quebeceko gutxiengo anglofonia oso ondo antolatuta dagoela, eta bere alde daukala Ipar Ameriketara ingelesa hizkuntza nagusia izatea. Bestalde, datuek frogatzen dute Quebeceko gutxiengo anglofonoek Quebecetik kanpoko gutxiengo frankofonoek baino diru gehiago jaso dutela. Eta, batez ere, datuek esaten digute politika horren ondorioz, Quebecetik kanpoko frankofonoak (Ontarioko eta New Brunswick-eko gutxiengoak kontuan hartu gabe) federazioko biztanleriaren %3 baino ez direla. Horrek agerian uzten du Kanadako aurrera eramandako hizkuntza-politika porrot hutsa izan dela. Quebecen, berriz, anglofonoen kopurua gehitu eta ingelesaren erabilera areagotu egin da.

Horiek dira, beraz, Kanadako hizkuntza-politikaren ezaugarriak, eta Federazioak erakusten duen jarrera.

7.- AMAITZEKO IRUZKINAK

Lan honetan zehar ikusi dugu Quebec oso adibide ona dela hizkuntza gatazka egoera bat aztertzeko, edota konprobatzeko kultura, hizkuntza eta herri baten iraupenarentzat zein garrantzitsuak diren hainbat faktore: historia politika, demografia eta gobernuen jokabidea.

Quebeceko hizkuntza-egoera, faktore horien nahasketatik sortzen da:

-Historia politika: egoera ulertzeko kolonizazio garaira jo behar dugu, europarrek aurrera eramandako kolonizazio horrek ondorio batzuk ekarri baitzituen: herri autoktonoak desagertzeaz egon ziren, Kanada sortu zen, eta sistema federatiboa jarri zuen martxan. Dударik gabe, konpetentzien banaketa horrek eragin handia izan du hizkuntzaren iraupenarentzat.

-Demografia: Kanadara ailegatutako eta egun ailegatzen jarraitzen duten etorkin-kopuru handia, eta hizkuntza-komunitate bakoitzaren ugalkortasun-tasa faktore garrantzitsuak izan dira egungo biztanleriaren banaketan, eta hizkuntza bakoitzaren egoeran.

-Kanadako eta Quebeceko gobernuen jokabidea: elebitasun ofizialetik, eta derrigorrezko hezkuntza hizkuntza ofizialetan emateko betebeharretik hasita, hizkuntza-politika poliki-poliki garatu da egungo legerira ailegatu arte.

Faktore horiek ezin dira ulertu Quebeceko frankofonoen betiko nahia kontuan hartu gabe: quebectarrek beti pentsatu dute komunitate desberdina osatzen dutela kultura eta hizkuntza propioekin, eta kultura hori gordetzeko, hizkuntza zaindu behar dutela. Herri autoktonoek ere pentsakera bera eduki dute, nahiz eta beraientzat emaitza oso desberdina izan edo kasu batzuetan porrota hutsa jaso.

Lan honetan Quebeceko gobernuaren hizkuntza-politika aztertzen saiatu da. Asmoa zen ulertzea politika horren eragina lurraldeko frankofono, anglofono eta alofonoen egoeran. Horretarako, hizkuntza komunitate diferenteetan hizkuntza-politika horrek eduki duen bilakaera ikusi dugu.

Halaber, quebectarren hizkuntza-politika horrek jasandako kritikak aipatu dira: “zehatzegia” izateagatik, edota zenbait arlotan (enpresa-munduan, esaterako) sartzegatik. Dena den, eta nahiz eta oinarrian oso printzipio zehatzak dituela egia izan, ezin da ukatu politika horrek onartzen dituen salbuespenek, erabiltzen dituen

bitartekoek eta praktikan daukan eraginak “oreka” ematen diotela, politika neurritsu bihurtuz. Egia da, beste herrialde batzuetako hizkuntza politikekin alderatuz, quebectarrena ez da politika bitxia ez helburuetan ezta estrategietan ere. Are gehiago, Quebeceko hizkuntza-politika legeria zuhur eta malguan oinarritzen dela esan daiteke, bere helburua frankofonoen eta anglofonoen arteko oreka mantentzen saiatzea baita. Gehiengo frankofonoaren nahia Quebecen frantsesa hizkuntza arrunta eta ohikoa izatea da; anglofonoek, berriz, Quebeceko gizartean ingelesaren presentzia ziurtatu nahi dute. Oreka aurkitzea, beraz, ez da erraza, eta frogatzeko bakarrik hartu behar dugu kontuan politika horren oinarritzko bitartekoa Hizkuntza Frantsesaren Gutuna, alegia- zenbat aldiz aldatu den, epaitegien sententziak eta hiritarren iritzia kontuan hartzeko.

Bestalde, Quebeceko hizkuntza-politikaren aurkako jarrerak “gizabanakoaren eskubideen defentsan” oinarritu dira. Defentsa horrek Kanadako Eskubideen eta Askatasunen Gutuna (Charte canadienne des droits et libertés) eduki du abiaburua, eta “norberekeriaren kulturatik” elikatu da. Hala ere, jarrera horien aurrean (estatua gizabanakoaren bizimoduan ahalik eta gutxien sartzea defendatzen duten jarreraren aurrean), beste jarrera batzuk ere sortu dira, gizarte eta taldearen eskubideak defendatzen dituztenak, hain zuzen. Azken hauek dira botere publikoak bultzatzen dutenak kultura eta hizkuntza babestera.

Lanean ikusi dugu Quebeceko gobernuaren hizkuntza-politikak Gutunaren aplikazioari buruzko eztabaida asko sortarazi dituela, baina era berean konturatu gara Kanadako eta Quebeceko hiritarren jokabidea demokratikoa izan dela beti. Ondorioz, Gutuna jokabideak erradikalizatzeko aitzakia izan beharrean, bake-iturri eta oso lege baliogarri bihurtu da.

Gutunari esker, zegoen joera aldatu eta frantsesaren erabilera ohikoa eta arrunta egin da Quebecen. Frantsesa dela hizkuntza komuna (baina ez hizkuntza bakarra) frogatzeko balio du. Frantsesaren egonkortasun horrek gizartean bakea lortzeko lagundu du, 60ko hamarkadako hizkuntzari buruzko eztabaida mingotsei amaiera emanez.

Halaber, Gutunak berdintasunaren alde jokatu du: bere aplikazioari esker, frankofonoen diru-sarrerak eta anglofonoenak parekatu dira, eta frankofonoek lanpostu hobeak lortu ahal izan dituzte enpresetan eta administrazioan.

Hala ere, badago konpontzeke dagoen arazo bat: Kanadako eta Quebeceko hizkuntza-politikak ez datoz bat, eta hori kalte handia eragiten ari da quebectarrengan.

Ez adostasunaren egoera horrek agerian uzten du ikuspuntu desberdinen arteko borroka, eta hori txarra da hiritarrentzat zein hizkuntzarentzat. Aditu batzuen ustean konponbidea helduko da Quebeci (baita gainontzeko probintziei ere) hizkuntzari buruzko eskumena ematearekin batera, baina badirudi etorkizun hurbil batean hori ez dela gertatuko.

Bestalde, bi politika horien beste helburuetako bat herri autoktonoen hizkuntzak eta kulturak babestea izan behar da. Izan ere, kritikagarria da orain indarrean dagoen politika, “epela” eta “anbigua” baita, eta agerian uzten baitu bi gobernuen interes eza.

Amaitzeko, eta etorkizunari begira, badirudi orain arte ikusitakoak frogatzen digula Quebecen frantsesaren bilakaera positiboa izango dela: horixe izan da quebectar gehienek adierazitako borondatea, eta indarrean dauden legeek horretarako aukera ematen dute.

BIBLIOGRAFIA

-LIBURUAK, ALDIZKARIAK ETA ARTIKULUAK

Barrenetxea, T. eta Zalbide, M. (2001): Esparruz-esparruko mikrokroplangintzak.

Barreña, A. eta Juaristi, P. (2001): Hizkuntza gutxituak nazioarte mailan.

BAT Soziolinguistika aldizkaria (2001eko iraila, 40. zb): Frantsesaren lege-babesa Quebecen, aurrerabideak. Quebecen ingeleses hitz egiten duen hiztun taldearen eta ingelesaren beareren egungo egoerari nahiz etorkizunari buruzko kezkak, Alliance Québec.

Corbeil, Jean-Claude (1980): Office de la langue française. L'aménagement linguistique du Québec, Montréal, Guérin éditeur.

Levine, Marc (1990): The Reconquest of Montreal. Language policy and social change in a bilingual city, Philadelphie, Temple University Press.

Rapport de la Commission d'enquête sur la situation de la langue française et sur les droits linguistiques au Québec (1972): La langue de travail, Livre 1, Québec, L'Éditeur officiel du Québec.

Salvail, B. (2000): Expériences eta projects pour le suivi des programmes de francisation au Québec. Office de la langue française, Direction de la francisation, Québec.

-WEB ORRIAK

Bulletin du Conseil de la langue française:

Volume 15. 1999. Les langues de communications publiques.

Volume 17. 2001. Culture plurielle et langue citoyenne.

www.clf.gouv.qc.ca

Census of Canada (1996)

www.statcan.ca

Charte canadienne des droits et libertés. Commissaire aux Langues Officielles

www.canada.gc.ca

Charte de la langue française et ses règlements d'application: Règlement sur la langue de commerce et des affaires, Règlement sur l'affichage de l'administration, Règlement précisant la portée de l'expression "de façon nettement prédominante"

www.olf.gouv.qc.ca/charte

Charte québécoise des droits et libertés de la personne (1982)

www.gouv.qc.ca

Chevrier, Marc: De lois et des langues au Québec. Principes et moyens de la politique linguistique québécoise, 1997; Le fédéralisme canadien et l'autonomie du Québec: perspective historique, 1996 et Les fondements d'une politique linguistique au Québec, 1997

www.mri.gouv.qc.ca/la_bibliotheque/langue/loi-langue

Commission de protection de la langue française

www.cplf.gouv.qc.ca

Comission de toponymie

www.toponymie.gouv.qc.ca

Conseil de la langue française

www.clf.gouv.qc.ca

Dépenses de l'Administration publique québécoise au titre de la culture, 1994-1999. Institut de la statistique du Québec

www.stat.gouv.qc.ca

Dossier 35. Les langues autochtones du Québec. Le statut des langues autochtones et leurs domaines d'utilisation au Québec, D. Ronán F. Collis. Les Langues autochtones d'hier à aujourd'hui, Louis-Jacques Dorais. La politique des gouvernements du Canada et du Québec en matière de langues autochtones, Francois Trudel

www.clf.gouv.qc.ca/Publications

Lemieux, Diane (2001): Cabinet de la ministre d'Etat à la Culture et aux Communications. Office de la langue française, Secrétariat à la politique linguistique. La politique linguistique du Québec.

<http://communiqués.gouv.qc.ca>

Les nations autochtones au Québec. Gouvernement du Québec

www.gouv.qc.ca

Livre blanc du gouvernement fédéral sur la politique indienne, 1969

www.mts.net/pb998156/autochtones/1969

Livre Blanc sur la politique québécoise de la langue française, 1977

www.spl.gouv.qc.ca/secretariat

Loi sur les langues officielles (1988)

www.ocol-clo.gc.ca/2f.htm

Lois définissant le statut des langues autochtones: loi constitutionnelle de 1982, loi sur l'instruction publique pour les autochtones.

www.gouv.qc.ca/informations/lois

Maintien et développement des langues autochtones au Québec (1989)

www.pages.infinit.net/histoire

Marmen, Louise eta Corbeil, Jean-Pierre (1996): Nouvelles perspectives canadiennes. Les langues au Canada.

www.pch.gc.ca/offlangoff/prespectives/francais

Norris, Mari Jane (1996): Canada's Aboriginal Languages. Demography Division. Statistics Canada.

www.stat.gouv.qc.ca

Price, John A. (1980): The Viability of Indian languages in Canada. Department of Anthropology. York University. Downsview, Ontario, Canada

www.brandonu.ca/library/cjns/1.2/price.pdf

Rapport annuel (1999-2000): Office de la langue française

www.olf.gouv.ca

Rapport annuel sur les langues officielles (2000-2001): Commissaire aux Langues Officielles

www.tbs-sct.gc.ca/report

Statistiques culturelles financières (1993-1997): Institut de la statistique du Québec

www.stat.gouv.qc.ca

Secrétariat à la politique linguistique. La langue française au Québec. Politiques, lois et règlements.

www.spl.gouv.qc.ca

The Atlas of Canada

www.atlas.gc.ca

Turp, Daniel: Vision politique.

www.daniel.turp.qc.ca